

**KAUKASOKO**

**HIZKUNTZA**

**ANIZTASUNA**

Egilea: Mikel García López de Sabando

Iruñea, 2002-09-17

# KAUKASOKO HIZKUNTZA ANIZTASUNA

## 0.- SARRERA

Hizkuntza aniztasuna eta hizkuntzen ekologia gero eta gehiago entzuten diren kontzeptuak dira. Hizkuntza aniztasunari buruz zaila da jakitea munduan dauden hizkuntzen kopurua, oro har, erabiltzen diren zenbakiak 6.000 hizkuntzen ingurukoak dira, (Moseley & Asher-en *Atlas of the World Languages-en* arabera 6.796, Grimes-en *Ethnologue-k* 6.528 ematen du).

Hizkuntza aniztasun hau ziztu bizian galtzen ari da, zenbait ikerlarien arabera XXI. mendea bukatu baino lehen munduko hizkuntzen erdia galduko da.

Hizkuntza bat desagertzea gertaera hagitik kaltegarria da ez bakarrik hizkuntza erabiltzen duen edo zuen talde edo herriarentzako, baita gizateria guztiarentzako ere, hizkuntza bat desagertzera mundua ulertzeko modu bat galtzen baita ere.

Lan honen helburua hizkuntza aniztasun handiko lurralde baten berri ematea da. Dagoeneko VIII. mendean arabiarrek “hizkuntzen mendia” deitu zuten Kaukasoko eskualdea. Gaur egun hizkuntza-aniztasun honek bizirik dirau.

Errealitate aberats honetara hurbiltzeko, gaia bere testuinguruan kokatu behar da, horretarako lehenengo atalean eskualdearen egungo egitura politikoa zein den azalduko dugu, bigarrenean bertan solasten diren hizkuntzen zerrenda emanen dugu eta hirugarrenean hizkuntza bakoitzaren deskribapen linguistikoa eta soziolinguistikoa eskainiko dugu.

## 1.- METODOLOGIA

Lana garatzeko metodologiari dagokionez, arestian emandako hizkuntzei buruzko ahal den informazio gehiena bildu dugu. Horretarako hizkuntza guztietan erabiltzen ahal dugun “galdetegi” antzeko bat prestatu dugu. Beraz, hona hemen galdetegiaren erredua:

- \* Hizkuntzaren izena(k), autoglotonimoa eta exoglotonimoa.
- \* Non hitze egiten den.
- \* Dialektoak (izatekotan), eta euren izenak.
- \* Bertze hizkuntza batzuekiko harremanak.
- \* Hiztun kopuruak

\* Idazten den hizkuntza den ala ez, noiztik hasita, zein alfabeto erabiltzen duen eta izatekotan idatzizko lan nagusienak.

\* Nolabaiteko ofizialtasun maila duen ala ez.

Dena den, zenbait hizkuntzei buruzko datuak lortzea hagitx zaila da, batez ere eta aurkakoa ematen badu ere, nolabaiteko “estatusa” duten hizkuntzei buruzko datuak: lezgi, avar, karachay-balkart...

## **2.- KAUKASOKO BANAKETA POLITIKOA**

Egun Kaukasoa lau estatuen artean banatua dago, 1991n SESB desegin eta gero iparraldeko Kaukasoa Errusiaren baitan geratu zen, hegoaldean aldiz, hiru errepublika independente sortu ziren: Georgia, Armenia eta Azerbaijan.

### 1.1.- Errusiar Federazioa

Arestian erran bezala ipar Kaukasoa orohar Errusiar Federazioaren baitan dago. Ondoren Kaukasoko eskualde honetako probintzia, errepublika eta eskualde autonomoen zerrenda emanen dugu.

- 1.1.1.- Iparraldeko Adygheia, hiriburua Maykop.
- 1.1.2.- Kabardino-Balkaria, hiriburua Nal'chik.
- 1.1.3.- Karachay-Cherkesia, hiriburua Cherkessk.
- 1.1.4.- Iparraldeko Osetia edo Alania, hiriburua Vladikavkaz.
- 1.1.5.- Ingushetia, hiriburua Nazran.
- 1.1.6.- Chechnya, hiriburua Grozny.
- 1.1.7.- Dagestan, hiriburua Majachkala.
- 1.1.8.- Kalmykia, hiriburua Elista.
- 1.1.9.- Stavropol, hiriburua Stavropol.
- 1.1.10.- Krasnodar, hiriburua Krasnodar.

### 1.2.- Georgia edo Skartvelo

Hiriburua Tblisi, bere baitan ondoko errepublika edota eskualde autonomoekin:

- 1.2.1.- Abkhazia, hiriburua Sokhumi.
- 1.2.2.- Adzharia, hiriburua Batumi.
- 1.2.3.- Hegoaldeko Osetia, hiriburua Tsikhinvali.

### 1.3.- Armenia edo Hyastan

Herrialdearen hiriburua Yerevan da.

### 1.4.- Azerbaijan

Hiriburua Baku, bere baitan honako errepublika edota eskualde autonomoekin:

- 1.4.1.- Nakhichevan, hiriburua Nakhichevan.
- 1.4.2.- Ngorno Karabakh, hiriburua Stepanekart.

### 3.- KAUKASOKO HIZKUNTZA ZERRENDA

Atal honetan eskualdeko hizkuntzen zerrenda ematen dugu, horrenbertze hizkuntza izanik genetikoki sailkatu ditugu, horrela gai honi hurbilpena errazagoa izanen delakoan.

Kaukasoa hizkuntza-talde hauek bereizten dira: 1. ipar kaukasiarrak, 2. hego kaukasiarrak edo kartveliarrak, 3. altaikoak eta 4. indoeuroparrak.

1.- Ipar kaukasiar hizkuntzak bi adar hauetan bereiz daitezke:

1.1.- Ipar-mendebaldekoa edo Abkhaz-Adyge, 3 taldetan banatua:

1.1.1.- Abkhaz-Abaza izeneko taldeak bi hizkuntza hauek biltzen ditu.

1.1.1.1.- Abkhaz (1)

1.1.1.2.- Abaza (2)

1.1.2.- Adyghe eta Kabardin-Cherkess: 3 herri hauek izen bera ematen diote bere hizkuntzari: Adygebze hain zuzen. Bi hizkuntza bereizten dira:

1.1.2.1.- Adyghe (3)

1.1.2.2.- Kabardin-Cherkess (4)

1.1.3.- Ubikh: desagertua, hondarreko hiztuna (Tevfik Esenç), 1992an hil zen Turkian. (5)

1.2.- Ipar-ekialdeko hizkuntza kaukasiarren multzoa edo Nakh-Dagestandar multzoa, izenak dioen bezala bi multzoz osatua: Nakh multzoa eta Dagestangoa edo ekialdekoa.

1.2.1.- Nakh-Vaynakh, honako hiru hizkuntza hauekin:

1.2.1.1.- Bats edo Ts'ova-Tush (6)

1.2.1.2.- Chechen edo Nakh (7)

1.2.1.3.-Ingush edo Ghalghaj (8)

1.2.2.- Dagestandarra edo ekialdekoa, honen baitan 3 azpimultzo bereizten dira:

1.2.2.1.- Andi-Avar-Dido taldea, honen baitan:

1.2.2.2.1.- Andi multzoa:

1.2.2.2.1.1.- Andi (9)

1.2.2.2.1.2.- Akhvakh (10)

1.2.2.2.1.3.- Bagvalal (11)

1.2.2.2.1.4.- Botlikh (12)

1.2.2.2.1.5.- Ch'amalal (13)

1.2.2.2.1.6.- Ghodoberi, (14)

1.2.2.2.1.7.- K'arat'a (15)

1.2.2.2.1.8.- T'indi. (16)

1.2.2.2.2.- Avar: Avar (17)

1.2.2.2.3.- Dido:

1.2.2.2.3.1.- Behz'ta edo K'ap'uch'a (18)

1.2.2.2.3.2.- Dido edo Tsez (19)

1.2.2.2.3.3.- Hinukh (20)

1.2.2.2.3.4.- Hunzib (21)

1.2.2.2.3.5.- Khvarshi (22)

1.2.2.2.- Lak-Dargwa, bi hizkuntza hauek osatua.

1.2.2.2.1- Lak (23)

1.2.2.2.2- Dargwa edo Dargin (24)

1.2.2.3.- Lezgi edo Samuriar taldea:

1.2.2.3.1.- Archi (25)

1.2.2.3.2.- Aghul (26)

1.2.2.3.3.- Budukh (27)

1.2.2.3.4.- Khinalug (28)

1.2.2.3.5.- Kryts (29)

1.2.2.3.6.- Lezgi (30)

1.2.2.3.7.- Rutul (31)

1.2.2.3.8.- Tabasaran (32)

1.2.2.3.9.- Ts'akhur (33)

1.2.2.3.10.- Udi (34)

2.- Hego Kaukasiar edo Kartveliar hizkuntzak

2.1.- Georgiera (35)

2.2.- Lazera (36)

2.3.- Megrelera (37)

2.4.- Svanera (38)

3.- Hizkuntza altaikoak, bi adarretan banatuak:

3.1.- Mongoliarra

3.1.1.- Kalmyk edo Oirat (39)

3.2.- Turkiarra:

3.2.1.-Azerbaijanera (40)

3.2.2.- Karachay-Balkar (41)

3.2.3.- Kumyk (42)

### 3.2.4.- Nogay (43)

## 4.- Hizkuntza indoeuroparrak, hiru adarretan banatuak:

### 4.1.- Armeniera (44)

### 4.2.- Eslaviarra

#### 4.2.1.- Errusiera (45)

### 4.3.- Iraniarra

#### 4.3.1.- Kurduera (46)

#### 4.3.2.- Osetiera (47)

#### 4.3.3.- Talyshera (48)

#### 4.3.4.- Tatera (49)

Kaukasiarrak diren hizkuntza taldeen klasifikazioa oraindik guztiz garbi ez dagoen afera da. Batzuentzako Kaukasoko hizkuntzak talde bakarra osatzen dute, hizkuntza Ibero-Kaukasiarren taldea, bertan biltzen dituzte kartveliar hizkuntzak eta ipar kaukasiar guztiak.

Bertze batzuentzako, gehiengoarentzako alegia, bi hizkuntza kaukasiar multzo daude: bata hegoaldekoa edo karveliarra eta bertzea iparraldekoa edo ipar kaukasiarra. Bi talde hauen arteko harreman genetikorik ez baita oraindik frogatu. Hau da gure sailkapenerako erabili duguna.

Azkenik, bada hirugarren iritzi bat, honek hiru hizkuntza kaukasiar multzo desberdintzen ditu: hegoaldekoa edo kartveliarra, ipar-mendebaldekoa edo Abkhaz-Adyge eta ipar-ekialdekoa edo Nakh-Dagestandarra.

## **4.- KAUKASOKO HIZKUNTZEN EGOERA**

Atal honetan hizkuntzen azaleko deskribapen linguistikoa eta soziolinguistikoa egingen dugu. Hizkuntzak banan-banan aztertuko ditugu, zenbait aspektu multzoka emanen baditugu ere, eta bakoitzaren egoera azaldu.

### 1.- Ipar kaukasiar hizkuntzak

#### 1.1.- Ipar-mendebaldeko kaukasiar hizkuntzak.

Sarrera: Adyge eta Kabardin-Cherkess herriak, 1864 baino lehen Itsaso Beltzaren iparraldean eta ekialdean bizi ziren, Kuban ugaldetik, edo agian Don ugaldetik, Mingrelia edo Guriaraino, zein egun Georgia den. Honako herri hauekin egiten zuten muga: ekialdean hizkuntza iraniarreko Osetiar herriarekin, hegoaldean hizkuntza

turkiarreko Karachai-Balkart herriarekin eta Ubikh herriarekin Sochi inguruko kostaldean.

Ubikh hiztunen hegoaldean Abkhaz herria bizi zen eta hauek kartveliar hizkuntz multzoko Megrel eta Svan herriekin egiten zuten muga.

Errusia tsaristak 1864an Kaukaso osoa bereganatu zuenean, Cherkes eta Abkhaz herritar gehienak eta Ubikh herritar guztiek Otomandar inperiora ihes egin zuten. Beraien ondorengoak egun bi eta lau miloi pertsona artean daude, eta batez ere Turkian bizi dira. Herri hauen diaspora Kosovotik Israel eta Jordaniaraino heltzen da.

1864tik aitzin, eslaviar anitz finkatu ziren historikoki ipar-mendebaldeko herri kaukasiarren lurretan, hegoaldeetik aldiz, kartveliar eta armeniar andana iritsi zen lurralde hauetara.

### 1.- Abkhaz

Hizkuntzaren autoglotonimoa *apsua* da eta bere lurraldeari *Ashvy* deitzen diote. Inguruko herriek honako izen hauekin ezagutzen dituzte: *aigba* karachay, *mdauei* kabardin, *baskhyg* ubikh, *mephaz* svan, *aphaza* megrel, *apkhazi* georgiarrak eta *abaza* turkiarrak.

Abkhaz herria Itsaso Beltzaren kostaldean, Georgiako iparraldean dagoen Abkhaziako Errepublikan bizi da.

Bi dialekto dauzka: iparraldeko bzip eta hegoaldeko abzui (edo abzhyzywa). Iparraldekoak hegoaldekoak baino fonetika konplexuagoa dauka. Iparraldekoak 67 fonema kontsonantiko dauzka eta hegoaldekoak, aldiz 58.

Populazioari dagokionez, 1989ko hondarreko sobietar erroldak, kopuru hauek ematen zituen: SESBen 109.938 abkhaziar bizi ziren, hauetatik 95.853 Georgian, gehiengoa Abkhazian bertan (93.267), bertako populazioaren %17,8. Honako hau izan da talde etnikoaren bilakaera, parentesi artean hiztunen %koa agertzen dela: 1959: 65.400, (% 95), 1970: 83.240, (% 95,9), 1979: 90.915, (% 94,3), 1989: 105.308, (% 93,5). Geroztik egoera demografikoa anitz aldatu da, 1992an gerra piztu baitzen Abkhazian eta georgiar eta Megrel anitzek Abkhazia utzi baitzuten. Bertzalde, erran behar da abkhaziar anitz megreliarrekin batera bizi zirela, komunitate mistoetan, eta beraz elebidun zirela (abkhaz eta megrel hizkuntzatan). Bada abkhaz komunitate txiki bat Georgiako Adzharia errepublika autonomoan, XIX. mendeko gerra kaukasiarren ondorioz hemen kokatu baitziren. 1970 sobietar erroldaren arabera 1.361 ziren, hauetatik %72,2k bere abkhaz hizkuntza solasten zuten

Abkhaz hizkuntzari buruzko ikerketak 1860ko hamarkadan hasi ziren, P.K, Uslar errusiar hizkuntzalariaren eskutik. Honek, hizkuntzarako oinarri zirilikoko alfabetoa sortu zuen 55 karakterrekin. Alfabeto hau bzip dialektoan oinarritu zuen, baino karakter kopurua txikiegia zen fonema guztiak azaltzeko.

1909an A. Ch'och 'ua-k bertze eredu bat prestatu zuen. Eredu hau 20 urtez iraun zuen eta honekin Ebanjelioak (1912) eta Ch'och 'ua-ren eskola liburua argitara eman ziren.

N. Marr-ek alfabeto analitikoa diseinatu zuen, 75 karakterrekin eta erromatar alfabetoan oinarritua. Alfabeto hau arras zaila zen erabiltzeko, ordea. Horrela, N Jakovlev-ek 1928an abkhaziar alfabeto batua prestatu zuen. Garai honetan abzui dialektoak bzip-en

lekua hartu zuen hizkuntza idatzian, fonetikoki hain konplexua ez zelako, eta, batez ere, garai hartako idazle nagusienena zelako.

1936-38 bitartean SESBeko alfabeto erromatarrak, zirilikoan oinarritutako alfabetoz ordezkatu ziren. Dena den abkhaz, hizkuntzak, Hegoaldeko Osetiako osetiar hizkuntzak bezala, georgieran oinarritutako alfabeto bat hartu behar izan zuen, Stalin georgiarraren eta Beria megreldarraren politika asebetetzeko. Alfabeto hau 1953an Stalin hil arte izan zen indarrean. Dena den hagitz argitalpen guti egin ziren alfabeto honekin, 40ko hamarkadan georgierak abkhaz hizkuntza ordezkatu baitzuen eskoletan. Lehen erran bezala, Stalin hil eta gero batzorde batek oinarri zirilikoko alfabeto berria prestatu zuen. Honek zirilikoan ez dauden 14 karaktere dauzka, hauetako batzuk P.K. Uslarren sistematik hartuak.

Alfabeto hau indarrean dago egun, hala ere alfabeto erromatarrean oinarritutako bertze eredu batera aldatzea proposatu da berriki, Turkian bizi diren abkhaziarrentzako baliagarri izateko eta idatzizko eredu unibertsala izateko (beti ere balore fonetiko berak erabiltzen badira).

Abkhaziako estatus politikoa oraindik argitu gabe dagoen afera da, 1992an abkhaziarrek Georgiarekiko independentzia aldarrikatu baitzuten. Dena den Georgiako konstituzioak abkhaz hizkuntza ofizialtzat hartzen du.

## 2.- Abaza

Hizkuntzaren autoglotonimoa *abaza* da eta horrela deitzen dituzte ere hurbilean bizi diren Cherkes, Adyghe eta Kabardin herriak.

Abaza herriaren gehiengoa Karachay-Cherkesia Errepublikan bizi da: Abazakt, Abazá-Jabl, Apsua, Kaidan, Kubina, Chikun eta bertze herri batzuetan.

Hizkuntzak bi dialekto dauzka: t'ap'anta eta ahsjarywa, baina zenbait adituentzako egokiago izanen zen abkhaz-abaza hizkuntzak continuum moduan hartzea, non abzui eta t'ap'anta bazterretan izanen ziren. Bertzalde, ahsjarywa dialektoa, t'ap'anta eta sadz (egun Turkian bakarrik hitz egiten de abkhaz hizkuntzaren aldaera) dialektoen arteko lotura egiten zuela uste da.

Abaza talde etnikoaren bilakaera honako hau izan da hiztun kopuruari dagokionez, parentesi artean hiztunen %koa agertzen da: 1926: 13.825, (% 94,8), 1959: 19.600, (% 94,3), 1970: 25.448, (% 96,1), 1979: 29.497, (%95,3), 1989: 33.613, (%93,5).

Errusian eta atzerrian bizi diren abaziarren kopurua 50.000-100.000 pertsona bitartean dago, iturrien arabera.

Idazkerari dagokionez 1923an Talustan Tabulov-ek alfabeto erromatarrean oinarritutako sistema prestatu zuen, 1938an zirilikoan oinarritutako alfabetora aldatu behar izan zuen. Abaza herria abkhaz herriarengandik geografikoki isolaturik dago eta bertze iparmendebaldeko kaukasiar hizkuntzen antzeko alfabetoa erabiltzen du. Egungo alfabeto ziriliko modernoan ez dagoen karakter bakarra erabiltzen du <I>. Horrela nahiko urruntzen da 1953ko abkhaziar alfabetotik.



Abaza hizkuntzak inolako ofizialtasun mailarik ez badu, lehen hezkuntzan irakasten da. Bertzalde, hizkuntza honetan liburuak eta egunkariak idazten dira eta irratian erabiltzen da.

### 3.-Adyghe

Herri honek bere buruari *Adygebze* deitzen dio, hizkuntzari aldiz *adyghe*.

Hizkuntza Iparraldeko Adygheiko Errepublikan eta Krasnodar probintzian hitzegiten da.

Hizkuntza honako dialekto hauetan banatzen da: bzheduj (fonetikoki konplexuena, 66 kontsonante baititu), shapsug, temirgoy eta abadkej (abzaj), hondarreko hau 1864 baino lehen dialekto zabalduena zen eta diasporako dialektoen artean zabalduena da. Dena den gaur egun Kaukasoko herri bakar batean mintzatzen da, Shovgenovskij-en.

Hiztun kopuruari dagokionez 1989ko sobietar erroldak datu hauek eskaintzen zizkigun: orotara 122.908 adyghe bizi ziren SESBen. Hauetatik 96.000 inguru Iparraldeko Adygheiko Errepublikan bizi ziren. Krasnodarko probintzian bertze 22.000 inguru bizi ziren.

Hizkuntzaren ikerketa eta idazkerari dagokionez, sobietarrek temirgoy dialektoa hartu zuten idazkerarako. Adyghe hizkuntzak 1928an egin zuen alfabeto arabiarretik erromatarrena aldatzea eta 1938an zirilikora aldatu zuen. Orain alfabeto erromatarrean oinarritutako eredu diseinatzekotan dabilta Adygheak. Diasporan, Israelgo bi shapsug herrietan soilik irakasten da hizkuntza. Bertzalde, N. Jakovlev errusiar ikerlariak idatzizko adyghe hizkuntzaren gramatika prestatu zuen 1941ean.

Ofizialtasunari dagokionez, Iparraldeko Adygheiko Errepublikako hizkuntza ofiziala da errusierarekin batera. Krasnodargo probintzian ez dauka inolako ofizialtasunik.

### 4.- Kabardin-Cherkess

Herri honen autoglotonimoa *Adygebze* da.

Hizkuntza Karachai-Cherkess Errepublikan, Kabardino-Balkariako Errepublikan, Iparraldeko Osetiako Mozdok hirian, Krasnodar probintziako eta Iparraldeko Adygheiko zenbait herrietan erabiltzen da.

Hizkuntzari kabardin izena ematen zaio eta bi dialektoetan banatzen da: a) berezko kabardiera, ipar-mendebaldeko kauasiar hizkuntza multzo honetan fonologikoki pobreena (idatzizko forman 45 kontsonante) eta b) besleney.

Hiztun kopuruari dagokionez 1989ko sobietar erroldak datu hauek eskaintzen zizkigun: Kabardin-Cherkess herria bi multzotan banatua dago: Karachai-Cherkess Errepublikan bizi direnei Cherkess izena ematen zaie. 1989ko erroldaren arabera 52.500 inguru bizi ziren SESBen, hauetatik 40.230 arestian aipatutako errepublikan, bertako populazioaren % 9,6 osatzen zutelarik. Kabardino-Balkariako Errepublikan bizi direnei, kabardin

deitzen zaie, 1989an 391.000 inguru bizi ziren SESBen, hauetatik 363.351 bere errepublikan, populazioaren % 48,2 zirelarik

Hizkuntzaren ikerketa eta idazkeraz, Shora Nogma kabardiarrak (1801-44) oinarri zirilikoko alfabetoa prestatu zuen, gramatika eta hiztegia prestatzeko (Nal'chik-en 1956 eta 1959ean argitaratuak). Beranduago eredu arabiarra erabili zen, adibidez L. Loeweren *A Dictionary of the Circassian language* liburuan. Kabardin hizkuntzak 1924an alfabeto arabiarra erromatarraz ordezkatu zuen eta 1936an zirilikora aldatu zuen. Adyghe eta kabardin-cherkess hizkuntzak hurbilak izanik, sobietarrek idatzizko bi eredu sortu ziren, batasuna sustatu beharrean zatiketa bultzatuz. N. Jakovlev errusiar ikerlariak idatzizko kabardieraren gramatika prestatu zuen 1941ean.

### 5.- Ubikh

Hizkuntza honek 83 edo agian 84 fonema kontsonantiko zeuzkan, beraz, alde honetatik aberatsena da hizkuntza multzo honetan. Lehendabiziko ikerketa filologikoak hasi zirenean hizkuntza honen gainbehera hasia zegoen dagoeneko. Gertaera honek hagitik zaila egin du bere baitan dialektoak izan ziren argitzea. 1992ko urrian, Tefvik Esenç hondarreko hiztuna hiltzean hizkuntza desagertu zen.

Badirudi 1864 baino lehen Ubikh guztiak, bere jatorrizko lurraldean, Ubikhian, elebidun zirela, bai abkhaz hizkuntzaz (sadz dialektoan?) edo adyghe hizkuntzaz. Beranduago Turkiako diasporan, adyghe hizkuntzara aldatu ziren, nahiz eta batzuk ubikh hizkuntza gorde.

Ikerketari dagokionez, P.K. Uslar izan zen exodoa baino lehen hizkuntza aztertu zuen ikerlari bakarra. Diasporan ikerlari hauek aztertu zuten hizkuntza: D. Benediksen, A. Dirr alemaniarra, J. Von Mészáros hungariarra eta G. Dumézil frantziarra. Bertze ikerlari batzuk H. Vogt eta G. Charachidze izan dira.

Ipar-mendebaldeko kaukasiar hizkuntza multzo honek orokorrean bertze hizkuntza hauen eragina izan du: iraniarra (osetiar hizkuntza) eta turkiarra. Kartveliar hizkuntzek eragin handia izan dute abkhaz eta abaza hizkuntzetan. Kontuan hartu behar da 1864tik aitzin megrel eta georgiar hiztun anitz kokatu zirela Abkhazian. Bertzalde, ubikh hizkuntzak multzo bereko diren abkhaz, abaza, adyghe eta kabardin-cherkess hizkuntzetatik elementu anitz hartu zituen.

1.2.- Ipar-ekialdeko hizkuntza kaukasiarrak edo Nakh-Dagestandar multzoa. Honen baitan:

1.2.1.- Nakh-Vaynakh multzoa

### 6.- Bats

Herri honek *Batsav* edo *Batsba nah* du autoglotonimoa, (*Batsbi* pluralean), hizkuntzari *batsba motjiti* deitzen diote. Kartveliar hizkuntzadun herriek (georgiarrak, svan eta

megrel), *Ts'ova-Tush* deitzen dituzte, Dagestango Dido herriak *Tsuv-ak* izena ematen dio bats herriari.

Hasiera batean Bats herria Georgia iparraldeko Tusheti probintziako (hemendik dator georgiarrek herri honi ematen dioten *Ts'ova-Tush* izena) 4 herrietan bizi zen: Sagirta, Otelta, Mozarta eta Indurta. XIX. mendearen hasieran Georgiako ekialdera emigratzen hasi ziren eta gaur egun K'akhetia probintziako Zemo-Alvani herrian bizi dira.

Bats hizkuntzan ez da dialektorik desberdintzen.

Hiztun kopuruari dagokionez ez dago inolako ziurtasunik, sobietar erroldatan georgiarrekin batera agertu baitira beti. Dena den 1960ko hamarkadako "SESBeko herrien hizkuntzak" liburuak 2.500-3.000 inguruko zenbakiak ematen ditu.

Bats hizkuntza ez da inoiz modu ofizialean idatzi, idatzizko erabilerarako georgiera (batez ere) edo errusiera erabiltzen baitira

## 7.- Chechen

Herri honek *Nwokhchuo* (*nwokhchi* pluralean) deitzen dio bere buruari, hizkuntzari aldiz *nwokhchin mot*. Iparraldean bizi den Kumyk herria *michigish* izena ematen dio, Michik ugaldetik eratorria. Chechen izena, errusiarrek aurkitu zuten lehen checheniar herriaren izena da.

Chechen hizkuntza Checheniako Errupublikan hitzegiten da Chechen batzuk Dagestanen eta Georgia ekialdean bizi dira (Kist izena ematen diete georgiarrek).

Nakh hizkuntza multzoari buruzko ikerketak chechen eta ingush hizkuntzak elkarren artean ulergarri direla azpimarratzen dute, hau da continuum bat osatzen dutela. Ez da gauza bera gertatzen bats hizkuntzarekin, arestiko multzotik fisikoki berezia baitago  
Dialektoei dagokionez honako hauek bereizten dira:

1.- Lautadako checheniera, idatzizko hizkuntzaren oinarri dena, aldaera hauekin (errusierazko moduan): cheberloskij, sharoskij, shatojsko-itumkalinski, galanchzhojskij eta akkinskij, hondarreko hau Khasav-Yurten, Dagestanen.

2.- Mendiko checheniera, bi aldaerekin: khildikharojskij eta majstinskij. Hondarreko aldaera hau Georgian hitz egiten da, XVII eta XIX mendeen artean bertara emigratu zuten checheniarren artean.

Hiztun kopurua: 1989ko sobietar erroldaren arabera SESBen 958.309 chechen bizi ziren, hauetatik 734.501 garai horretako Chechen-Ingush Errepublikan bizi ziren, non bi taldeak batera populazioaren %70,7 ziren. Checheniar hauen % 98,6k checheniera zuen ama hizkuntza, %76k errusiera zekien eta %7k kaukasoko bertze hizkuntzaren bat.

Idazkera: ingush eta chechen hizkuntzetarako bi eredu literario desberdin sortu ziren. Chechen hizkuntzak lautadako hizkera hartu zuen estandartzat. 1920 eta 1924 bitartean arabieran oinarritutako alfabetoa egon zen indarrean, 1925 eta 1937 bitartean alfabeto erromatarra eta 1938tik aitzin alfabeto zirilikora aldatu zuen. 1991n Dzokhar Dudaievek independentzia aldarrikatu eta 1993an alfabeto erromatarra ezarri zuen berriro.

Erran beharra dago chechen hizkuntza dela gaur egun errepublikako hizkuntza ofizial bakarra, gutxienez 1999an Checheniako II gerra hasi baino lehen.

## 8.- Ingush

*Ghalghaj* da herri honek erabiltzen duen autoglotonimoa. hizkuntzari *ghalghaj mot* deitzen diote. Ingush izena Angush herritik dator.

Hizkuntza Ingushetiako Errepublikan erabiltzen da eta neurri txikiagoan Iparraldeko Osetiako Errepublikan, Prigorodnyj-ko barrutian.

Hizkuntzan ez da dialektorik desberdintzen.

Hiztun kopurua: 1989ko sobietar erroldaren arabera SESBen 237.577 ingush bizi ziren, hauetatik 163.711 garai horretako Chechen-Ingush izeneko errepublikan, beranduago errepublika bitan zatitu baitzen. Ingushen % 97,4k ingushera zuten ama hizkuntza eta % 79,4k errusieraz zekien

Ingusherari dagokionez, 1923an erromatar alfabetoa erabiltzen hasi zen. Alfabeto honekin argitara ematen zen “Serdalo” egunkaria. 1938an idazkera zirilikora aldatu zen. Hizkuntza hauei buruzko ikerketek chechen eta ingush hizkuntzak elkarren artean ulergarri direla azpimarratzen dute; hau da, continuum bat osatzen dutela. Ez da gauza bera gertatzen bats hizkuntzarekin, arestiko multzotik fisikoki berezia baitago.

1864tik aitzin Chechen eta Ingush batzuek Otomandar inperiora ihes egin zuten, bere ondorengoak oraindik Jordanian bizi direla.

1944an Stalinek chechen eta ingush anitz deportatu zituen Kazakstanera, naziak lagundu zituztela akusaziopean. 1957an itzultzeko baimena eman zitzaienten. Bertan beren hizkuntza, kultura eta erlijioa gorde zituzten. Dena den, Ingush errepublikako mendebaldeko eskualdea (Prigorodnyj) osetiarren eskura pasa zen.

Nakh multzo hau osatzen duten 3 hizkuntzetan (bats, chechen eta ingush), honako hizkuntza hauen eraginak nabaritzen dira: arabiera, iraniarra (osetiar hizkuntza), turkiera eta georgiera.

Bats hizkuntzak georgieraren eragin handia dauka, Bats guztiak solasten baitira georgieraz, hizkuntza honetan ikasi eta idazten baitute.

### 1.2.2.- Dagestandar multzoa.

Sarrera:

Eleaniztasuna izugarria da Dagestango Errepublikan, hizkuntza anitz eskualde menditsu eta herri gutxitan hitz egiten da. Horrela ez da arraroa izaten eskualde menditsu hauetako biztanleek lautadetako hizkuntza bat baino gehiago ezagutzea. Adibidez, A. Dirr ikerlariak kontatzen du nola Mohamed Mohamedlin Lo archi hizkuntzako informatzaileak, bere hizkuntza gain lak, avar, aghul, kumyk, arabiar eta errusiar hizkuntzak hitz egiten zituela. Hizkuntza komunitate txiki hauetako anitz ez da erroldatan agertzen, sobietar garaiko erroldatan eskolan ikasitako hizkuntzaren eta

literatur hizkuntzaren arabera sailkatzen baitziren, horrela dido eta andi hizkuntzetako hiztun guztiak Avar herriko kide bezala hartzen ziren.

Bertzalde, zenbait hizkuntza komunitatek ez daukate autoglotonimorik eta identifikatzeko orduan bere *aul* edo herriaren izena ematen dute.

Hauetako hizkuntza batzuk Dagestango errepublikaren mugetatik at hitz egiten dira, batez ere Azerbaijanen.

Dagestango hizkuntza guztietatik soilik zazpik daukate nolabaiteko estatusa: avar, dargwa, kumyk, lak, lezgi, nogai eta tabasaran hizkuntzak. Hauetaz gain, errusierak ere hizkuntza ofiziala izaten jarraitzen du eta etnia desberdinen arteko komunikazio tresna nagusia da.

Hizkuntzen banaketa:

Egun dagestandar hizkuntzen hiztunak Majachkala hiriburuan eta errepublikaren iparraldeko lautadetan bizi badira ere, banaketa tradizionala honako hau da: Chechenia ekialdean andi multzoko hizkuntzen hiztunak bizi dira (iparraldean andi eta hegoalderago t'indi), andi multzoko hiztunen hegoaldean, mendebaldetik ekialdera, ghodoberi, botlikh eta k'arat'a hizkuntzen hiztunak bizi dira. Hauen hegoaldera bagvalal, ch'amalal eta akhvakh hizkuntzak aurkitzen ditugu.

Avar herria andi hizkuntzen lurraldearen ekialdetik, iparraldeko mendietatik, Dagestan erdiraino zabaltzen da. Dido multzoa, andi hizkuntzekin, avar herriarekin eta Georgiako Tusheti eta K'akhetia probintziekin egiten du muga.

Dagestan erdialdeko ekialdea Dargwa herriaren lurraldea da. Hemendik kostalderaino hizkuntza turkiarreko Kumyk eta hizkuntza iraniarreko Tat herriak bizi dira. Lak herriaren lurraldea, Dargwa eta Avar herrien artean kokatzen da.

Dagestango hegoaldean eta Azerbaijango iparraldean lezgi edo samuriar hizkuntz multzoa aurkitzen dugu. Lezgi hizkuntza bera, egun Errusia eta Azerbaijango muga internazionalaren bi aldeetan mintzatzen da. Budukh, khinalug eta kryts hizkuntzak Azerbaijango iparraldean mintzatzen dira soilik, batzuentzako ez daukate lezgi multzoko bertze hizkuntzekin harreman genetikorik.

Udi hizkuntza Azerbaijanen (Vartashen eta Nidzh herrietan) eta Georgian (Okt'omberi, lehen Zinobiani) herrietan hitz egiten da. Batzuentzako udi hizkuntza desagertutako Kaukasoko albanieraren ondorengo izanen zen. Hizkuntza hau Kaukaso hegoaldeko hirugarren hizkuntza handia litzateke (georgiera eta armenierarekin batera) eta berezko alfabetoa izanen zuen (georgiera eta armeniera bezala). Bertzalde, udi hizkuntzaren bitartez deszifratu ziren Mingchaur-eko inskripzio albaniarak.

1.2.2.1.- Andi-avar-dido taldea

1.2.2.1.1.- Andi multzoa

## 9.- Andi

Hizkuntzaren autoglotonimoa *q'vann-ab mitsi* da, gizonekoak *q'vann-av* dira eta emakumeak *q'vann-aj* dira. Bere buruari *Khivannal* deitzen diote.

Andiak Dagestango Botlikh barrutian bizi dira, honako *aul* edo herri hauetan: Andi, Gunha, Ghaghatl, Rik'van, Chakhno, Zilo, Munib eta Kvanhidatl.

1926ko erroldak andiak 7.953 zirela erraten digu. Urte horretatik aitzin andiak avar bezala agertzen dira erroldatan, horregatik ezinezkoa egiten zaigu hiztunen kopuru zehatza jakitea. 1959an Y Desheriyev-ek 8.000ko kopurua eman zigun. 1967an urtean I. Tsertsvadze andi gramatika bat idatzi zuen georgieraz eta 8.000-9.000 hiztun zirela estimatu.

Bi dialekto multzo bereizten dira: goitikoak (ghaghtl, rik'van, chakhno eta zilo aldaerak) eta beheitikoak (munib eta kvanhidatl). Zenbait iturriren arabera desberdintasunak daude emakume eta gizonen hizkeren artean. Andi hizkuntza eguneroko bizitzan erabiltzen da, bertze talde etnikoekin komunikatzeko avar eta errusiar hizkuntzak erabiltzen dira, bi hizkuntza hauen ezagutza hagitz zabaldua baitago Andien artean. Arabiera erlijiorako hizkuntza da eta bertze garai batzuetan hagitz zabaldua zegoen. Zenbait Andik checheniera ere ezagutzen dute.

#### 10.- Akhvakh

Akhvakh herriak *Ashvado* deitzen dio bere buruari eta *ashvali mitsi* hizkuntzari. Hurbil bizi diren Avarrak *ghakhyevalá* izenaz ezagutzen dituzte.

Akhvakh herria Andi-Koisu eta Avar-Koisuko ugalden arteko mendietan bizi dira, bi enklabeetan, iparraldekoa Akhvakh barrutiko bortz herrietan: Tad-Maglit, Kvankero, Logonitl, Kuydab-Roso eta Izanin. Hegoaldekoa Sovetsky barrutiko 3 herrietan bizi dira: Ratlub, Tsegob eta Tlyanub. Bertzalde, zenbait herritako biztanleek Azerbaijanera emigratu zuten Akhvakh-Dere herria sortuz.

Bi dialekto multzo bereizten dira, iparraldekoa eta hegoaldekoa

1926ko erroldak 3.677 Akhvakh kopurua eman zuen. Ondoren avar balira bezala erregistratu ziren. 1947an Y Desheriev-ek 4.000ko kopurua eman zuen. 1967an Z. Magomedkovak 5.000 hiztun estimatu zituen 9 herrietan (*aul*).

#### 11.- Bagvalal

Herri honek *bagvalazul mitshitsi* deitzen dio bere hizkuntzari. Autoglotonimorik ez du eta bagvalalal terminoa avar hizkuntzatik hartua da, batzutan *Kvanada* deitzen diote bere buruari, *aul* edo herri handienaren izena.

Bagvalalak Andi-Koisu ugaldaren ezkerreko aldean bizi dira 6 herritan, hauetako lau Tsumanda barrutian eta bi Akhvakh barrutian. Honako hauek dira *aul*-en izenak: Kvanada (Khvanch bagvalal hizkuntzan), Tlondoda (Gijnduch), Hushtada (Gyussach), Gemerso (Gyemesi), Tlissi (Ljissi) eta Tbisho (Gijbishi).

Dialektoak 3 dira: Kvanada-Gmerso, Tlondoda-Hushtada eta Tlissi-Tlibisso. Bere lurraldea honako talde etnikoekin egiten du muga: iparraldean Andiak, ipar-ekialdean K'arat'ak, ekialdean Akhvakhak, hegoaldean eta hego-ekialdean Ch'amalalak eta ipar-ekialdean Ghodoberiak.

Gramatikalki bertze bi hizkuntza hauen antzekoa da: ch'amalal eta t'indi, bereziki hondarreko honekin dauka antza handiena, hau dela eta garai batean hizkuntza bereko

dialektotzat hartzen ziren. Hizkuntzak arabiar, turkiar eta avar hizkuntzen solas anitz dauzka. II mundu gerraketik aitzin errusieraren eragina handia izan da.

1926ko erroldak Bagvalalak 3054 zirela erraten digu, urte horretatik aitzin Avar bezala zenbatu ziren. 1958k eta 1967k kopuruak ikerketa akademikoei dagozkie: 1958an 4.500 inguru ziren eta 1967an T. Gudavak 4.000ko kopurua ematen du.

## 12.- **Botlikh**

Herri honek *Buihalji* deitzen dio bere buruari eta *buihadalji mitstshi* hizkuntzari. Egun Botlikh-en gehiengoa elebiduna da eta avar hizkuntza ezagutzen du.

Bi herrixkatan bizi dira: Botlikh (Buihe bere hizkuntzan) eta Miarsi (Kilu), Dagestan Errepublikako Botlikh barrutian. Honako hauekin egiten dute muga: iparraldean Avar, ekialdean Andi, Godoberi hegoaldean eta Chechen mendebaldean.

Bi herrixka hauen hizkerak antzekoak dira, eta Miarsuko hizkerak ghodoberi hizkuntzarekin zubia egiten du.

Hiztun kopuruari dagokionez errolda ofizial bakarra 1926koa da eta Botlikh-ak 3.354 zirela erraten digu, horietatik % 86,2 botlikh hizkuntzaren hiztunak. 1958rako Y. Desheriev-ek 2.000ko zenbakia ematen du eta 1963. urterako T. Gudava ikerlari georgiarrak 3.000 inguru zirela erraten du.

## 13.- **Ch'amalal**

*Chamalaladu* da herri honek erabiltzen duen autoglotonimoa. Hizkuntzari ematen dioten izena *chamalaldub mitchtch* da.

Herri hau Dagestango Tsumada barrutian, Andi-Koisu ibarraren ezker aldeko 8 herri edo *aul* hauetan bizi da: Gakvar, Agual, Tsumada, Urukh, Gachitl, Quenkh, Gigatl eta Gador. Andi-Avar-Dido multzoko herriei egiten dute muga: Godoberiak iparraldean, Avar, Bagavalal eta T'indi ekialdean eta Avarrak hegoaldean

Hizkuntzan bi dialekto bereizten dira: Gakvari eta Gigatl. Hondarreko dialekto honetan Ghodoberi hizkuntzaren eragina nabari daiteke. Hurbilen dituen hizkuntzak bagvalal eta t'indi dira.

Hiztun kopuruari dagokionez, errolda ofizial bakarra 1926koa da: 3.438 1958rako Y. Desheriev-ek 5.000ko zenbakia ematen du eta Z. Magomedkovak 4.000ko estimazioa ematen digu 1967 urterako.

Hizkuntza honi buruzko ikerketak eskasak izan dira: XIX mendeko bukaeran A. Dirr-ek eta R. Erckert-ek hizkuntza aztertu zuten. II. munduko gerratearen ondorengo ikertzaileak E. Bokarev eta Z. Magomedkova izan dira.

Hizkuntza ez da idazten eta erabilera honetarako avar hizkuntza erabiltzen da.

#### 14.- Ghodoberi

Hizkuntzaren autoglotonimoa *gijbdilhi miiis* da.

Ghodoberi herria Botlikh barrutiko Ghodoberi (Gjudu bere hizkuntzan), Zibirhali (Shalu) eta Beledi herrietan bizi da, Andi-Koisu ugaldearen ezker aldean. Dagestan iparraldeko Khasav-Yurt herrian Ghodoberi anitz bizi da etorkin bezala. Ghodoberiek honako herri hauekin egiten dute muga: Botlikh iparraldean, Andi ekialdean, Bagvalal eta Chamalal hegoaldean eta Chechenia mendebaldean.

Bi dialekto daude: Ghodoberi eta Zibirhali, bien arteko diferentzia nagusia ahoskeran datza. Hurbilen dituen hizkuntzak andi eta botlikh dira.

Herri honi buruzko errolda ofizial bakarra dugu, 1926koa, honek 1.425 pertsonen zenbakia ematen digu, hauetako %99,2 ghodoberiren hiztunak. Hurrengo kopuruak estimazioak dira soilik: Y. Desheriev-ek 2.500eko kopurua ematen du 1958an, 1967. urterako T. Gudava ikerlari georgiarrak 2.500 inguru zirela erraten digu, 1973an aldiz P. Saidova-k 2.500 kopurua baieztatzen du.

Hizkuntza ez da idazten eta horretarako avar hizkuntza erabiltzen da. Mendeetan zehar avar, turkiar eta arabiar hizkuntzetatik solas anitz hartu ditu. XX mendean errusiera izan da mailegu iturri nagusia.

#### 15.- K'arat'a

Herri honek *Khkhiridi* izena ematen dio bere buruari, hizkuntzari *khkhirlhi matshshi* deitzen diote.

K'arat'a herria Akhvakh barrutiko 8 herritan bizi da, Andi-Koisu ugaldearen ezker aldean: Karata, Rachabalda, Archo, Anchikh, Mashtada, Tshabakoro, Ratsitl eta Tokita. XIX mendean Shiukh herriko biztanle guztiek Gumbert-era egin zuten alde, geroago Dagestan iparraldeko Khasav-Yurt-era aldatu ziren. Aldamenekoak honako herri hauek dira: ekialde eta iparraldean Andi, mendebaldean Avar eta hegoaldean Akhvakh eta Bagvalal

Bi dialekto (k'arat'a eta tokita) eta lau azpidialekto (anchikh, archi, ratsitl eta rachabalda) bereizten dira. Arestian aipatutako dialekto hauek alderdi fonetiko eta morfologikoetan desberdinu arren elkarren artean ulergarri dira.

K'arat'a-k herri berezi bezala hartu zituen lehen eta azkeneko errolda 1926koa izan zen, bertan 5.305eko kopurua agertzen da, hauetatik %100 k'arat'a hizkuntza zekiten. II mundu gerratik aitzin ematen diren kopuruak estimazioak dira, horrela Y. Desheriev-ek 1958an 6.000 zirela erraten digu eta Z. Magomedkovak 5.000.

Hizkuntza ez da idazten eta idazteko avar hizkuntza erabiltzen da.

#### 16.- T'indi



Herri honek ez du autoglotonimorik, T'indi izena bizi diren herriaren avar izena da. T'indi -ek Idari deitzen diote herri honi. Errusiar literaturan T'indi herriari Tindal izena ematen zaio batzuetan.

T'indi-ek *idarab mitstsi* izena ematen diote bere hizkuntzari.

T'indiak Andi-Koisu ibarraren erdialdean bizi dira, 5 herri hauetan: T'indi (bere hizkuntzan Idari edo Idi), Angida (Angia), Aknada (Agjinachi), Echeda (Echeii) eta Tissi (Issi edo Milchi). T'indi herriak andi-dido multzoko herri hauekin egiten du muga: iparraldean Bagvalal, ipar-ekialdean Akhvakh, ekialdean Avar, hegoalde eta mendebaldean Khvarshi eta ipar-mendebaldean Chamalal.

Bi dialekto bereizten dira: t'indi alde batetiketa angida-kanada bertzetik. Dagestango hizkuntzen multzoan ch'amalal eta bagvalal ditu hurbilenak.

Herri honi buruzko datu iturri ofizial bakarra 1926ko errolda da, honek 3.812 pertsona zirela erran zuen, horietako %95 t'indi hizkuntzaren hiztunak. Hurrengo kopuruak estimazioak dira soilik: Y. Desheriev-ek 5.000eko kopurua ematen du 1958an, 1967. urterako T. Gudavak zenbaki bera ematen du.

T'indi-ari buruzko ikerketa gutxi egin dira. XIX. mendean A. Dirrek eta R. Erckert-ek eta soviatar garaian T. Gudava-k aztertu zuten hizkuntza hau.

## 17.- Avar

Avar hizkuntza andi-avar-dido multzoko partaidea da. *Magarul til* deitzen diote bere buruari eta *magarul matsi* edo *avar matsi* hizkuntzari. Georgiarrek *xund-eb-i* izena ematen diete.

Hizkuntza Dagestango barruti hauetan hitz egiten da: Guerguebil, Gumbet, Kazbek, Shamil, Tliaratin, Untsukul, Khunzal eta Charodin. Badira ere avar hiztunak Dagestango bertze barrutietan: Buinask eta Kizil-Yurt (populazioaren %70), Levash eta Khasav-Yurt (% 30) eta Kizliar (%20). Azerbaijango Belokan eta Zakataly barrutietan 44.100 avar bizi dira. Dagestan eta Azerbaijango mugetatik at 65.000 avar inguru bizi dira. XIX mendeko kaukasiar gerra akitzerakoan Avar batzuek Turkiara ihes egin zuten, 1981eko erroldaren arabera bertan 10.000 Avar bizi dira.

1989ko sobietar erroldaren arabera 604.202 ziren baino kopuru hri okerra dela erran behar da, andi-dido taldeko hizkuntzen hiztunak Avar balira bezala hartzen baitziren.

Hizkuntza arras aberatsa da dialekto eta azpi dialektoetan. Orokorrean honako hauek bereizten dira: khunzakh iparraldean eta ants'ukh hegoaldean alde batetik, eta ch'ar bertzaldetik. Bi multzoen artean batlukh dialektoa aurkitzen da.

Dagestango hizkuntzen artean avar hizkuntzak idatzizko tradizio zaharretakoa dauka, XV. eta XVIII mendeen artean sortua eta arabiar alfabetoan oinarritua. Idatzizko formaren oinarritzat khunzakh dialektoa hartu zen. Errusiar konkista baino lehen, iparraldeko khunzakh dialektoan oinarritutako *bol mats* (herriaren hizkuntza) erabiltzen zen Dagestan iparraldeko herrien arteko koine modura.

Egun avar hizkuntza Dagestango hizkuntza “estatalen” zazpietako bat da eta alfabeto zirilikoa erabiltzen du.

#### 1.2.2.1.3.- Dido edo Tsez multzoa

##### 18.- **Behz'ta** edo **K'ap'uch'a**

Herri honek *bezhkala mits* deitzen dio bere hizkuntzari. K'ap'uch'a izenak Bezhta herriaren georgiar izenean dauka jatorria.

Dagestango hiru herritan mintzatzen da: Bezhita edo Bezhta, Tljadali eta Hochar-Hota edo Hoshal-Hota, hirurak Tsunta-ko barrutian, Andi-Koisu eta Avar-Koisu ugaldeen arteko mendietan. Georgiako Chantlsikuri eta Saruso herrietan ere badira hiztunak, XIX mendean Georgiara joandakoen ondorengoak.

Hiru dialektotan zatitua dago: Bezhta, Tljadali eta Hochar-Hota. Honako hizkuntza hauetatik hartu ditu maileguak: avar eta georgiera batez ere, turkiera, persiera eta arabiera neurri txikiago batean. Sobietar garaian errusiera izan zen maileguen iturri nagusia.

Herri honi buruzko datu iturri ofizial bakarra dugu, 1926ko errolda, honek 1.447 hiztuneko zenbakia ematen digu, % 100 behz'ta hizkuntzaren hiztunak. Hurrengo kopuruak estimazioak dira soilik: Y. Desheriev-ek 2.800eko kopurua ematen du 1958an, 1968. urterako E. Bokarev-ek 2.500 ematen du.

Hizkuntza ez da idazten, erabilera idatziarako avarrera edo errusiera erabiltzen dira.

##### 19.- **Dido** edo **Tsez**

Herri honek *tsez* izena erabiltzen du autoglotonimotzat. Hizkuntzari *tseios mets* deitzen diote. Bertze kaukasiar hizkuntzatan *tsunti* deitzen zaie. Dido izena georgieratik dator.

Dido herria Andi-Koisu ibarraren goikaldean bizi dira, Tsunta barrutiko herri hauetan: Kideero, Gudatl, Azilta, Shaitl, Kituri, Asakh, Retlob, Shapikh, Hupri, Sagada, Mitluda eta Tsibari. Zenbait familia Dagestan iparraldeko Khasav-Yurt, Kizil-Yurt eta Kizliar hirietan bizi dira

Bortz dialekto desberdintzen dira: Kidero, Shaitl, Asakh, Saphikh eta Sagada. Hondarreko hori bertzeengandik hagitz desberdina da.

1926ko erroldatik aitzin Dido guztiak Avar balira bezala zenbatu ziren. Kopuruak honako hauek dira: 1926, 3.276 hauetatik % 97,7 dido hizkuntzaren hiztunak. 1958 (Y.

Desheriev), 7.000, 1967 (E. Bokarev) 7.000. Ikusten dugunaren arabera 1926 eta 1958 bitartean populazioa bikoiztu egin zen, azalpen bat izan daiteke 1926ko errolda gaizki egina egotea.

Hizkuntza apenas idazten da eta idatzizko erabilerarako avar hizkuntza erabiltzen da 1993. urtean dido hizkuntzan lehendabiziko liburua argitara eman zen.

## 20.- **Hinukh**

*Hinuzas Mets* da Hinukh herriak erabiltzen duen autoglotonimoa.

Hizkuntza hau Hinukh herriko biztanleek hitz egiten dute, Dagestango Tsunta barrutian.

Hiztun kopuruari dagokionez, 1926ko erroldan Hinukh herria Dido herriarekin batera zenbatu zen, ez dugu daturik beraz. Hurrengo erroldatan Hinukh guztiak (Didoak bezala), Avar balira bezala zenbatu ziren. Y. Desheriev-ek 1958an eta E. Bokarev-ek 1967an zenbaki bera ematen digute, 220 hiztun

A. Serzhputovsky, D. Imnaishvili, E. Lomtadze eta E. Bokarev-ek ikertu dute hizkuntza. Lehendabiziko bi ikerlariak hinukh dido hizkuntzaren dialekto hutsa izanen zen Bokarev-entzako ordea, hinukh hizkuntza dido multzoko hizkuntza izanen zen, mendebaldeko (dido eta khvarshi), eta ekialdeko (bezhta eta hunzib) hizkuntzen artekoa.

Mendeetan zehar hizkuntzak avar, dido eta georgiar hizkuntzen eragina izan du. XX mendean eragin nagusia errusierarena izan da.

Hizkuntza ez da idazten, idazteko avar hizkuntza erabiltzen da.

## 21.- **Hunzib**

Hunzib izena izen bereko herritik dator, *Nakhadin* izena ere erabiltzen da.

Hunzib herria Tsunta barrutiko hiru *aul*-etan bizi da: Hunzib, Gorbutlj eta Nakhada. Familia batzuk Dagestango iparraldean (Baba-Yurt, Kizil-Yurt eta Kizliar) eta Georgiako Kavareli probintziako Chantliskuri eta Sakaruso herrietan bizi dira. Hunzib herriak iparralde, hegoalde eta ekialdean Avar herriarekin egiten du muga, mendebaldean Bezhta herriarekin

Hizkuntzaren baitan ez dago dialektorik, ahoskera desberdintasun tikiak nabaritzen badira ere.

Hiztun kopuruari dagokionez, 1926ko sobietar erroldak Hunzib-ak 200 zirela erraten du. 1958 eta 1967an 600eko kopurua ematen dute Y. Desheriev-ek eta E. Bokarev-ek.

## 22.- **Khvarshi**

Herri honen izena bere hiri nagusiaren avar izenetik dator. Bere buruari *Huani* deitzen diote.

Khvarshi herria Tsumada barrutiko 5 herrietan bizi da: Kvarshi, Inhokari, Kvantlyada, Santlyada eta Khvainy. Herri hauekin egiten dute muga: iparraldean Ch'amalal, iparmendebaldean T'indi, Avar ekialdean eta Dido hegoaldean.

Hizkuntza bi dialektoetan banatzen da: Kvarshi eta Inhokari.

Populazioari buruzko datu hauek ditugu: 1926ko sobietar erroldak 1.019 zirela erraten du, hauetatik % 99,9 ama hizkuntzaren hiztunak 1958an Y. Desherievek 1.800 inguru zirela dio, 1967an E. Bokarev-ek 1.000 baino gehiago zirela dio.

Avarrera, arabiera, turkiera eta georgiera izan dira hizkuntzarentzako mailegu iturri nagusiak. XX. mendean errusiera bilakatu da mailegu iturri nagusia.

Hizkuntza ez da idazten eta erabilera horretarako avar hizkuntza erabiltzen da.

#### 1.2.2.2.- Lak-Dargwa multzoa

#### 23.- Dargwa edo dargin

Herri honek *dargan mez* deitzen dio bere hizkuntzari.

Dargwa hiztunak Dagestango Errepublikako barruti hauetan bizi dira batez ere: Akushin, Dajadaiev, Kaitag, Levashin eta Sergokalin. Bertze barruti batzuetan gutxiengoa dira: Adul, Buinask, Kaiakent eta Lenin. Gunib barrutiko Mageb herrian erabiltzen da ere. Dargwak Dagestango honako hiri hauetan bizi dira ere etorkin moduan: Izberbash, Kaspiysk eta Majachkala. Bertzalde, Baba-Yurt eta Khasav-Yurt barrutietan Dargwak zenbait herri sortu zituzten.

S. Jajdakov-ek 1985ean bi dialekto multzo bereizi zituen:

Jajdak adarra, honen baitan: jajdaj, chirag, ts'udaqar, k'ubachi eta tant

Aqush adarra, honen baitan: aqush, gubden, hurag, dibgash-megeb eta kichigamri.

Jajdaj eta k'ubachi dialektoen izaera eztabaida iturri da, ikerlari batzundako hizkuntza dira, bertze batzundako ordea, Dargwaren dialektoak hutsak izanen ziren.

**Jajdaj** Dagestango Kaitag barrutian erabiltzen da. 1989ko erroldak 14. 424 hiztun zirela erraten du. Bi hizkeratan sailkatzen da: goitikoa (Kirki, Varsit eta Shilyagi herrietan) eta beheitikoa (Sanchi eta Dzhavgat herrietan).

**K'ubachi** edo urbukh-eko hiztunak 2.500 inguru ziren 1926ko erroldan. Ondoren Dargwa balira bezala zenbatu zituzten. Gaur egun K'ubachi aunitz Dagestango hirietan (Derbent, Majachkala eta Kaspiysk) bizi da eta baita ere Dagestandik at.

K'ubachi-ak hiru hizkuntza erabiltzen dituzte: berea, dargwa eta errusiera. Hondarreko hau iraskuntzarako hizkuntza izan zen 1961-1991 bitartean. Urte horretatik aitzin klaseak dargwa hizkuntzan ematen dira.

1989 sobietar erroldaren arabera 365. 797 Dargwa bizi ziren SESB-en.

Hizkuntza hau Dagestango zazpi hizkuntza "estataletako" bat da.

#### 24.- Lak

Hizkuntzaren autoglotonimoa *laku maz* da. XIX. mendeko zenbait ikerlarik *kazikumuk* izena erabili zuten hizkuntza deitzeko.

Lak herria Dagestango Lakia eta Kulin barrutietan eta Akushin, Chorodin, Rutul eta Dajadaiev barrutietako zenbait herritan bizi da. Dena den, gaur egun hiztun gehienak Dagestango kostalde eta lautadetako hiritan bizi dira: Majachkala, Kaspiysk, Khasav-Yurt eta Buinask.

Dialekto hauek proposatu dira: kumuj, vitsjin, bartjin, arakul, shadnin, vijlin, pervocovkrin, kajalin-mashchijin eta vachiculin.

1989ko sobietar erroldak SESB-en 118.376 Lak bizi zirela erraten du.

Idazkerarako 3 alfabeto erabili dira lak hizkuntzan: alfabeto arabiarra XIX. mendean, erromatarra 1928-1938 bitartean eta zirilikoa 1938tik aitzin. Hizkuntza literarioaren oinarri bezala kumuj dialektoa hartu zen.

Dagestango zazpi hizkuntza “estataletako” bat da.

#### 1.2.2.3.- Lezgi edo samuriar taldea

#### 25.- Aghul

Aghul herriak *Agiul shui* autoglotonimoa erabiltzen du bere burua deitzeko.

Aghul hizkuntzako hiztunak Dagestango hego-ekialdean bizi dira, Tshirakh-Tsay eta Kurakh-Tshay ugaldeen ibarretan, Dagestango Aghul barrutian, barrutiko hiriburua Tpig da. Barruti honetan 19 herri Aghul eta 5 herri Dargwa daude. Tpig ondoren herri nagusienak Richa, Burkihan eta Khoredz dira. Aghul herriak honako herri hauekin egiten du muga: iparraldean Dargwa, ekialdean Tabasaran, Lezgi hegoaldean eta Rutul ekialdean.

Hizkuntza hiru dialektoetan banatzen da: agul, kere eta koshan.

Hiztun kopuruari dagokionez datu hauek dauzkagu: 1886an 6.522, 1895ean 7.185, 1926an 7.653 (%100 aghul hizkuntzaren hiztunak), 1933an 9.300, 1959an 6.700 (% 99,4), 1970ean 8.831 (% 99,4), 1979an 12.078 (% 98,3) eta 1989an 18.740 (% 94,9). Erran behar da zenbaki hauen fidagarritasuna ez dela erabatekoa, horrela 1979 eta 1989 bitartean populazioa 6.000 pertsonatan haztea gehiegizkoa ematen du.

1989ko datuen arabera Aghul-en % 68,9k errusieraz zekiten. Lezgiaren eta Azerbaijaneraren ezagutza zabaldua dago ere. Hezkuntzan hasiera batean lezgi hizkuntza erabili bazen, 1953tik aitzin hezkuntza guztia errusieraz ematen da. Egun aghul hizkuntza lehen hezkuntzan erabiltzen da. Egunkari bat badago ere “Ajsrar” izenekoa.

## 26.- Archi

Talde etnikoaren autoglotonimoa *Arshishtib* da.

Izen bereko *aul* bakarrean bizi dira, 2.000 metro inguruko altueran Kara-Koisu ugaldearen ibarrean, Charodin barrutian. Honako herriekin egiten dute muga: Avarrak ipar-ekialdean, Lak herria ekialdean eta Rutul herria hegoaldean.

Kopuruari dagokionez 1866an A. Komarov-ek 592ko zenbakia ematen digu, 1886an: 804, 1917an: 863, 1926an: 854. 1959ko erroldatik aitzin Avar bezala hartu ziren. Dagestango hizkuntzen artean hobekien aztertutakoen artean dugu, P.K. Uslar, A. Dirr, R. Erckert eta batez ere A. Kibrik-en lanari esker.

Archi hizkuntzaren sailkatze genetikoa eztabaidatua izan da. P.K. Uslar-ek avar hizkuntzen multzokoa zela uste zuen, R. Erckert-ek aldiz, lak hizkuntzatik hurbilago zegoela uste zuen. Bertze ikerlari batzuentzako, avar eta lak hizkuntzen arteko zubi-hizkera izan daiteke. Trombettik aldiz, andi-avar-dido taldean sartzen du. Egun zabalduen dagoen iritzia E. Bokarev-ena da, honek lezgi-samuriar taldean sartzen du

## 27.- Budukh

Budukh izena, bizi diren herriaren izena da, beraiek Budad izena ematen dio herri horri. *Budad* deitzen diote bere buruari eta hizkuntzari *budad mez*.

Budukh-ak izen bereko herrian bizi dira gehienbat, Azerbaijango Konahkent barrutian. Honako herri hauetan bizi dira ere: Gunei-Budad, Dali-Kalya-Heshlag, Kara-Gez (Konahkent barrutia), Ag-Yaze, Kara-Dagie, Lüzgi-Digäh eta Dovmal (Hachkhas barrutia).

Populazioari dagokionez 1926ko erroldan bakarrik agertu ziren herri moduan, hortik aitzin azerbaijandarrak balira bezala zenbatu zituzten. Honako kopuru hauek dauzkagu: 1886an 3.420, 1926ko sobietar erroldan 2.000, 1958an Y. Desheriev-ek 1.000 kopurua ematen du, 1967an E. Bokarev-ek 1.000 inguru zirela dio.

Budukh hizkuntza khinalug eta kryts hizkuntzekin batera lezgi-samuriar hizkuntzen multzoko Shahdag azpimultzoa osatzen du. Hizkuntza ez da idazten eta horretarako azerbaijanera erabiltzen da. Hizkuntzaren prestigioa gero eta txikiagoa da Budukh gizartean eta azerbaijanera gero eta gehiago erabiltzen da, Budukh guztiak elebidunak baitira. Hezkuntzarako azerbaijanera erabiltzen da.

## 28.- Khinalug

Khinalug herria Kudai-Tchai ugaldeko ibarraren goikaldeko herri bakar batean bizi da. Azerbaijandarrak Khinalyg izena ematen diote herri horri, Khinalug-ak aldiz, Ketch deitzen diote herriari eta *Ketch halh* edo *Kajttiodur* bere buruari.

Khinalug-ak Azerbaijango Konahkent barrutiko izen bereko herrian bizi dira. Khinalug herria arras isolatua dago, 2.300 m-tako altueran. Hurbileko herriak urruti daude: Kurush lezgi herria 50-60 km. ipar-mendebaldera, azerbaijandar herriak 20-25 km.

hegoaldera eta 15-20 ekialdera. Ipar-ekialdean Kryts herria dute auzokide eta mendebaldean Budukh herria.

Populazioari dagokionez, Khinalug herriari buruzko datuak dauzkagu, baina ez dakigu herriko biztanle guztiak hiztunak diren edo ez, horrela: 1859an 2.300 biztanle, 1886an 2.220, 1921 1.800, 1926an 1.400 eta 1976an 2500.

Klasifikazio genetikoari dagokionez, batzuentzako khinalug hizkuntza lezgi hizkuntzen Shahdag azpimultzoko kidea da, bertze batzuentzako ez dauka inolako harremanik lezgi hizkuntzekin. A. Genko-ren arabera khinalug hizkuntzak udi hizkuntzarekin dauka harreman estuena.

Khinalug guztiak elebidunak dira, bere hizkuntzaz gain azerbaijaneraz mintzo dira. 1970eko hamarkadatik aitzin Khinalug hizkuntza etxe barruan erabiliko da bakarrik, bizitzaren gainontzeko funtzioetarako azerbaijanera erabiliko da. Hizkuntza ez da idazten, idazkerarako azerbaijanera erabiltzen da. Herriko bi ikastetxeetan azerbaijanera da erabiltzen den hizkuntza.

### 29.- Kryts

Kryts herriak *Kjrtuar* deitzen dio bere buruari eta *kjruar mez* hizkuntzari.

Kryts hizkuntza Azerbaijango Konakhkent barrutiko bortz herrietan solasten da: Kryts (bere hizkuntzan Karat), Alyk (Ealig), Dzhek (Deg), Haput (Hafid) eta Eryguch (Yergüd). Honako herri hauek dituzte auzokotzat: Lezgiak iparraldean, Kkhinalug ekialdean, azerbaijandarrak hegoaldean eta Budukh herria mendebaldean.

Hizkuntzan lau dialekto bereizten dira: Kryts, Dzhek, Haput eta Alyk.

Hiztunen populazioari buruzko datu hauek dauzkagu: 1886an 7.767, 1926an 2.600 (Dzhek eta Haput herriak), 1958an 5000 eta 6.000 bitarte (Y Desheriev). 1959ko erroldatik aitzin azerbaijandarrak balira bezala zenbatuko dituzte.

Lezgi hizkuntzen taldeko Shahdag azpimultzoko kide da, talde honen baitan budukh du hizkuntza hurbilena.

Hizkuntza ez da idazten eta horretarako azerbaijanera erabiltzen da. Dagoeneko XX. mendearen hasieran Kryts guztiak elebidunak ziren (kryts eta azerbaijaneraz). Egun ere hezkuntzan azerbaijanera erabiltzen da. Hizkuntza soilik zaharrek etxean erabiltzen dute eta zenbait datuen arabera ez da hizkuntza transmisiorik ematen

### 30.- Lezgi

Hizkuntzaren autoglotonimoa *lezgi chal* da.

1989ko sobietar erroldak SESB-en 466.833 Lezgi bizi zirela erraten digu, hauetatik 204.370 Dagestango hegoaldean eta 171. 395 Azerbaijango iparraldean. Bertze 60.000 inguru bere lurralde tradizionaletatik kanpo bizi dira.

Dialektoen arteko diferentzia handirik ez badago ere, hiru multzo proposatu dira: kjure, ajtseh eta quba.

Bertze hizkuntza batzuen eraginari dagokionez honako hauek dira nagusienak: iraniar multzoko hizkuntzak, turkiarrak (kumyk eta batez ere azerbaijanera), arabiera eta XX. mendean errusiera.

Historian zehar Lezgiek alfabeto desberdinak erabili dituzte bere hizkuntza idazteko: alfabeto albaniarra (VII. eta VIII. mendeak), arabiarra (IX-XX), erromatarra (XX. mendeko 20 eta 30 hamarkadak) eta 1938tik aitzin zirilikoa. Idatzizko hizkuntzaren oinarria kjure dialektoaren gjunej aldaera da.

Dagestango zazpi hizkuntza “estataletako” bat da.

### 31.- Rutul

Rutul herriak *Mjukhadar* deitzen dio bere buruari, Mjukhad herriko biztanle erran nahi duena. Lezgi herriak eta azerbaijandarrek Rutul izenaz ezagutzen dituzte.

Rutul herria Dagestan hegoaldeko Rutul barrutiko 20 herrietan bizi da, Samur ugaldeko goiko aldean. Rutul herria bizi den eskualdea ez da etnikoki homogenea, eskualde berean Lak, Lezgi eta azerbaijandar herriak baitaude. Rutul herri nagusienak Rutul, Borch, Khnov-Luchek, Ikhrek, Amsar eta Mjukhrek dira, Samur, Ahty-Chai eta Kara-Samur ugaldeen ondoan. Bertzalde, bi herri Rutul: Shin eta Kainar Azerbaijanen daude. Ondoko herri hauek dauzkate auzokide: Lak iparraldean, Dargwa ipar-ekialdean, Lezgi ekialdean, Azerbaijandarrak hegoaldean eta Tsakhur herria mendebaldean.

Hiru dialekto bereizten dira: Mjukhad, Mjukhrek eta Borch. Lezgi multzoko hizkuntzen artean hurbilen duena tsakhur hizkuntza da.

Hiztun kopuruari buruzko datu hauek dauzkagu: 1926an 10.333 (% 100 rutul hizkuntzaren hiztunak), 1959an 6.700 (% 99,9), 1970ean 12.071 (% 98,9), 1979an 15.032 (99,1), 1989an 20.388 (%98,4). Hondarreko urte honetan rutul hizkuntzaren hiztunen % 61,7 errusieraz zekien. Dagestango bertze hizkuntza batzuk ezagunak dira ere: lezgi eta ts'khur, hala nola azerbaijanera.

Rutul hizkuntza ez da idazten, 1952 arte hezkuntzan azerbaijanera erabili zen, urte horretatik aitzin eskolak errusieraz eman ziren. Orain dela urte gutxi Rutul alfabetoa prestatu zen.

### 32.- Tabasaran

Tabasaran herriak *tabasaran chal* deitzen dio bere hizkuntzari.

Dagestango Tabasaran (hiriburua Kuchni) eta Khiv (hiriburua Khiv) barrutietan bizi dira. Lehenengo barrutian 98 Tabasaran herri daude eta bigarrenean 25. Hondarreko barruti honen populazioaren erdia Lezgiak osatzen dute. Honako hauek dira Tabasaran herri nagusienak: Khiv, Khuchni, Kandik, Kushtil, Lyakhle, Djuli, Tchere, Mejkyul,



Kurag, Tinit, Arkit, Dyubek eta Shirtich. Tabasaran anitz Dagestango kostalde eta lautadetako hiritan bizi da gaur egun: Derbent, Ogni, Kaspiysk eta Majachkala. Honako herri hauek dauzkate auzokidetzt : iparraldean Dargwa, hegoaldean Lezgi, mendebaldean Agul eta ekialdean azerbaijandarrak.

Hizkuntzak bi dialektoetan banatzen da, hegoaldekoa eta iparraldekoa, hondarreko hau khanag izenaz ezagutzen da ere.

Tabasaranak Lezgi-samuriar hizkuntz multzoko bigarren herri nagusia dira. Hiztun kopuruari buruzko datu hauek dauzkagu: 1926an 31.915 (% 92, 7 tabasaran hizkuntzaren hiztunak), 1959an 35.000 (%99,2), 1970ean 55.118 (% 98,9), 1979an 75.239 (% 97,4), 1989an 98.448 (%96).

1932an idazkerarako oinarri erromatarreko eredu sortu zen eta 1938an alfabeto zirilikoaz ordezkatu zen. Idatzizko hizkuntzarako hegoaldeko edo khanag dialektoa hartu zen eredutzat (klase arteko desberdintasunak egiten ez duena) Eskolak sortu ziren Khiv eta Khuchni-n eta bigarren hezkuntzarako eskola bat Tinit-en. Tabasaran hizkuntzan egunkari bat sortu zen eta badira Tabasaran idazleak: M. Shakhlov eta A. Djafarov. 1960an antzerki talde bat sortu zen Khiv-en. Bertalde errusierak lezgiera eta azerbaijanera ordezkatu ditu bigarren hizkuntza moduan

Gaur egun Dagestango zazpi hizkuntza “estataletako” bat da.

### 33.- Ts’akhur

Ts’akhur herriak *Iyhjby* deitzen dio bere buruari. Hizkuntzari *tshazhna miz* deitzen diote. Tsakhur izena lezgi hizkuntzatik dator eta bere herri nagusiaren izena da, herri honi beraiek Tshaiki deitzen diote.

Ts’akhur herria Dagestango Rutul barrutian eta Azerbaijango Kakh, Zakataly eta Belokan barrutietan bizi da. Dagestanen 12 Ts’akhur herri daude, nagusienak hauek dira: Tsakhur, Gelmets, Kurdul eta Mikikh. Azerbaijanen 7 herri Ts’akhur daude. Bertalde, Azerbaijango bertze 11 herrietan azerbaijanera eta lezgi hiztunekin batera bizi dira. Honako herri hauekin egiten dute muga: ipar-ekialdean Rutul eta Lezgi, hegoaldean azerbaijandarrak, mendebaldean georgiarrak eta ipar-mendebaldean Avar.

Hiztun kopuruari buruzko datu hauek dauzkagu: 1887: 2.706 (Azerbaijango Ts’akhurak zenbatu gabe), 1926: 3.531, 1959: 7.321 (% 99,2 ts’akhur hizkuntzaren hiztunak), 1970: 11.103 (% 96,5), 1979: 13. 478 (% 95,2 ), 1989: 19,972 (%95,2). Hondarreko errolda honen arabera ts’akhur hizkuntzaren hiztunen % 50ak errusiera ezagutzen zuen eta % 11,4 azerbaijanera.

Lau dialekto desberdintzen dira: ts’khur, mishlesh, mikikh eta gelmets.

Hizkuntza ikertu dutenen artean, XIX. mendean R. Erckert eta XX. mendean A. Dirr eta A. Genko ditugu.

1932an idatzizko forma sortu alfabeto erromatarrean, baino ez zen inoiz erabili. 1938-1952 bitartean eskoletan azerbaijanera erabili zen, 1952tik aitzin eskolak errusieraz eman ziren. Berriki hizkuntzarako alfabetoa prestatu da.

#### 34.- Udi

Udi herriak hizkuntzari *udi muz* deitzen dio.

Gaur egun Udiak hiru herrietan bizi dira: Vartashen (gaur egun Oguz) eta Nijd Azerbaijan iparraldean dauden Vartashen eta Kutkashen (gaur egun Qabala) barrutietan eta Oktomberi (lehen Zinobiani) Georgiako Quareli barrutian, hondarreko hau Vartashengo etorkinek osatua da 1912-22 bitartean. 1990. urtean Udi anitz Vartashen-etik kanporatuak izatean, Nijd da gaur egun Udi hizkuntzako komunitate trinko bakarra. Azerbaijanen Shakhdag hizkuntz multzoko herriak (Kryts, Khinalug eta Budukh) eta azerbaijandarrak dituzte aldementzat. Georgian aldiz Tush georgiarrak.

Hizkuntza lezgi multzoko kidea dugu eta bi dialektoetan banatzen da: Vartashen eta Nijd, bi dialektoen arteko desberdintasunak handiak dira fonetika eta morfologian, Vartashengoak ezaugarri arkaiko gehiago gorde ditu. Oktonberiko hizkuntza Vartashengo hizkerara hurbiltzen da

Hizkuntz kopuruari buruzko datu hauek dauzkagu: 1897: 4.000, 1926: 2.500, bi urte hauen arteko diferentziaren arrazoia Vartashengo zenbait biztanle herria utzi eta Georgiara joan zirela da, hauek eroldan zenbatu ez zituztelarik, 1959: 3.678 (hauetako % 92,6 udi hizkuntzaren hiztunak, 1970: 5.919 (%93,5), 1979: 6.863 (% 89,9), 1989: 7.971 (% 85,7).

Kaukasoko herririk zaharretako dugu, Herodoto, Estrabon, Tito Livio, Tazito eta Ptolomeoren idazlanetan azaltzen dira. Autore klasiko hauen arabera Udiak Kuba ugalderraino eta Kaspio itsasoraino heltzen ziren.

Udi hizkuntza kaukasiar multzoko ikertuenetakoa da. Hizkuntza honen bitartez deszifratu ziren Mingchaur-eko inskripzio albaniarrak..

Hizkuntzaren eragin iturri nagusienak, iraniar multzoko hizkuntzak (talysh hizkuntza agian), georgiera, armeniera, azerbaijanera eta beranduago errusiera izan dira. Hizkuntza ez da idazten, erabilera idatzirako errusiera (Azerbaijanen) edo georgiera (Georgian) erabiltzen dira.

Udiak kristauak dira, Vartashen eta Oktomberi-koak ortodoxoak eta Nidj-koak armeniar-gregoriarrak. Lehengo biak elizkizunetarako georgiera erabiltzen dute eta Nidj-ekoak armeniera.

Eskolari dagokionez Azerbaijanen errusiera erabiltzen dute eta Georgian georgiera.

## 2.- Hego Kaukasiar edo kartveliar hizkuntzak

### 35.- Georgiera edo kartveliera:

Georgiarrak *Kartv-el-i* deitzen diote bere buruari. Hizkuntzaren autoglotonimoa *kart-ul-i-ena* da eta herrialdeari *Sa-kartv-el-o*. Georgia izena, Gruzija errusieraz eta Gürcüstan turkieraz, armeniar edo persiar jatorria omen du.

Georgiar hizkuntza dialekto hauetan banatzen da: **guriar** dialektoa Itsaso Beltzaren kostaldean, Mingreliatik hegoaldera hitzegiten da. **Adzhariarra** kostaldean erabiltzen da (guriarra eta laz hizkuntzaren artean). Hauen ekialdera **imeretiar** dialektoa erabiltzen da. Imeretiarraren iparraldera **lechum** dialektoa, (Mingreliaren ekialdean eta Svanetiaren hegoaldean). Ekialderago **rach'an** dialektoa. (Svanetia eta Hegoaldeko Osetia artean). Iparraldeko dialektoen artean (Hegoaldeko Osetiatik ekialdera), **mokhev** dialektoa eta honen hegoaldera **mtiul** dialektoa. Ipar-ekialdeko hizkeren artean mokhevetik ekialdera **khevsur**, honen hegoaldean **psahv**. Pshav dialektotik ipar-mendebaldera **tush** edo **chaghma-tush** dialektoa dago, Chechenia eta Dagestango mugen artean. Hondarreko honek ez dauka zerikusirik georgiarrak Bats hizkuntzari ematen dioten Ts'ova-Tush izenarekin. Ekialdean **k'aketiako** dialektoa da nagusi, **kartli**-ar dialektoa Georgiako erdialdeko eskualde zabalean erabiltzen da eta literatur eredu modernoaren oinarria da, (Tbilisi hiriburua barne).

Hegoaldeko dialektoak **dzhavakiarra** (kartli-eratik hegoaldera) eta honen mendebaldean **meskh** dialektoa. Georgiatik kanpora honako hizkera hauek dauzkagu: **ingiloi**, Azerbaijango Zakataly eskualdean, K'aketiako dialektoarekin muga eginez, **Mozdok**-eko dialektoa, (izen bereko Iparraldeko Osetiako hirian, Georgia ekialdeko emigranteak XVIII mendean eraman zutena eta gaur egun erabiltzen ez dena), **imerkev** dialektoa, egungo Turkiako ekialdean eta **fereydan**, izen bereko Irango hirian, XVII mendean Abbas Sha-ren deportazioaren ondorio.

Hiztun kopuruari dagokionez 1989ko sobietar erroldak SESB guztian 3.983.115 georgiar eman zituen. Hauetatik 3.787.393 Georgian, errepublikako biztanleen %70,1. Dena den kopuru hauek okerrekoak dira, 1930. urtetik aitzin Georgiako herri kartveliar guztiak (svan, megrel, eta laz) eta bats herria georgiarrak balira bezala zenbatu baitzituzten. Bertze kalkulu batzuen arabera georgiarren kopurua ez zen hiru milioietara iritsiko.

Georgiar alfabetoa: georgierazko inskripzio zaharrena, 430 urtearen ingurukoa Palestinako Belen hiritik hurbil dagoen eliza baten aurrien artean aurkitu zen. Georgian aurkitu den inskripzio zaharrena, 494koa, Tblisitik hurbil dagoen Bolnisiko elizan aurkitu zen. 330tik aitzin kristautasuna Georgiako erlijio ofiziala bihurtu zen, georgiar alfabetoa IV mendean sortu zen, kristautasuna zabaltzeko tresna bezala.

Alfabetoa ezkerretik eskuinera idazten da, gaur egun 33 karaktere dauzka, baina hasiera batean 38 ziren. Alfabeto honetan hiru eredu desberdin erabili dira:

- 1) Lehenengoa V eta IX mendeen artean erabili zen, *mrg(v)lovani* (biribildua) edo *asomtavruli* (maiuskula) izena ematen zitzaion. Lehenengo alfabeto honen oinarritik abiatuz bigarrena sortuko da:
- 2) *k'utxovani* (angeluarra) edo *msuxuri* (minuskula), armeniar alfabetoko karakterekin antza handia du eta X eta XI. mendeen artean erabili zen. XI. mendearen bukaeran karaktere biribilduetara itzuli zen, hauek oinarritzat hartuta eredu berri bat sortuz:
- 3) *Mxedruli* (militar) alfabetoa. Eredu hau indarrean dago oraindik. Dena den eliza ortodoxoak alfabeto zaharraren maiuskula eta minuskulen arteko konbinazioa erabiltzen jarraitu zuen, *xukuri* (eliztarra) izenekoa.

Literaturan hiru aldi bereizten dira:

- 4) Georgiera zaharra (V-XI mendeak), garai honetako lanak erlijiosoak dira batez ere. Iritsi zaigun lehenengo lana *San Shushanik-en martirioa* da.
- 5) Georgiera ertaina (XII-XVIII mendeak), garai honetan idatzi zuen Shota Rustavelik *Tigre larrudun zalduna* poema epikoa eta c) georgiar modernoa (XVIII. mendetik aitzin).

Bertze hizkuntza batzuen eraginari dagokionez, Kaukasoko eskualdea Europa eta Asia arteko bidegurutzean dago, beraz, anitz izan dira hemendik pasa diren herriak. Gertaera honek eragin handia izan du georgiar hizkuntzan. Honako hizkuntza hauen eraginak sumatu daitezke: grekera, latinera, pertsiera, arabiera, turkiera eta errusiera. Hauen artean eragin handiena izan dutenak pertsiera eta errusiera izan dira. Bertzalde, Armenia hain hurbil izanik, georgiar eta armeniar elizen arteko harremanak handiak izan dira, armeniar eragina handia izan delarik georgieran. Bertze eragin iturri bat izan dira Ipar Kaukasiar hizkuntzak, batez ere Nakh-Dagestandar multzokoak.

Hegoaldeko hizkuntza kaukasiarren artean georgiera da hiztun gehien dituen hizkuntza. Georgiako hizkuntza nagusia da eta abkhaz hizkuntzarekin batera (Abkhazian) herrialdeko hizkuntza ofiziala. Georgian hitzegiten gainerako hizkuntzak bats, laz, megrel, osetiera... ez daukate inolako lege estatusik Georgian.

### 36.- Laz

Laz herriak *Laz*-i deitzen dio bere buruari, hizkuntzari *laz-ur-i nena*.

Hizkuntza Turkian hitz egiten da batez ere, Georgia eta Turkia arteko mugako Sarpitik Turkian dagoen Rize-raino (Lazistan), badira Laz hiztunak Georgiako Itsaso beltzeko kostaldean ere.

Hizkuntza hiru dialektoetan banatzen da:

- 6) Khopa, Chkala azpidialektoarekin.
- 7) Vitse-Arkabe
- 8) Atina, Bulep-Artashen azpidialektoarekin.

Laz eta Megrel hizkuntzak elkarren artean ulergarri dira eta batzuentzako hizkuntza bakarra osatuko lukete. Teoria batzuen arabera, laz-megrel hizkuntzak egungo Georgiako kostalde guztian erabiltzen ziren, VII mendean arabiarrengandik ihesi zihoazen georgiar tribuak iritsi arte.

Turkian bizi diren kartveliar hizkuntzen hiztun kopurua ezezaguna da, estimazioek Laz herrirako 90.000 pertsona ematen dute, hauetatik 30.000 laz hizkuntzaren hiztunak. Georgiako kopuruekin berdin gertatzen da, 1930etik aitzin Georgian bizi ziren Svan, Megrel, Bats eta Laz guztiak Georgiar balira bezala zenbatu baitzituzten erroldan.

Svan guztientzat eta Megrel gehienentzat (gehienek georgiar ikastetxetera joaten baitziren eta gutxi batzuk errusiarretara) georgiera izan da irakaskuntzarako hizkuntza.

### 37.- Megrel

Megrel herriak *Margal-i* deitzen dio bere buruari, hizkuntzari *margal-ur-i nina*. Svan-ek aldiz, *zan-är* izena ematen diete, georgiarrek *megruli* izena ematen diote eta lurraldeari *Samegrelo*. Lurraldearen autoglotonimoa *Samargalo* da.

Hizkuntza Georgiako mendebaldean hitzegiten da, Kolkidan, Senaki, Abasha, Khobi eta Zugdidi eskualdeetan, Abkhazian Gali, Ochemchire, Gulripshi, Sokhumi eta Gagra eskualdeetan. Hegoaldean indarra galdu badu, hemen galdutako indarra iparraldean berreskuratu du, abkhaz hizkuntzaren kaltetan.

Bi dialekto nagusi bereizten dira: ipar-mendebaldeko Zugdidi-Samurzakan, honen baitan Dzhvar azpidialektoarekin eta hego-ekialdeko Senaki dialektoa, honen baitan Martvil azpidialektoarekin.

Hizkuntzaren hiztun kopuruei buruzko datu zehatzik ez dugu. 1926ko lehendabiziko sobietar erroldak Georgian 242.990 Megrel bizi zirela zioen. Estimazioek bertze zenbaki batzuk ematen digute Georgiarako: 500.000-1.000.000 Megrel.

“Asimilazio” hau azaltzeko georgiarrek argudio hauek eman dituzte: Svan eta Megrel herriak beti solastu zirela georgieraz eta batez ere hizkuntza literario eta elizkizunetarako georgiera erabili zutela. Baina honek ez du erran nahi hizkuntza ezagutzen zutenik, horren adibide da Erdi Aroan Europan herri xeheak ezagutzen ez zuten latinaren erabilera.

Gaur egungo Georgiako egoera nahasian, megrel hizkuntzaren estatusaren gaia “tabu” moduko bat da, Georgiarrak beldur baitira Megrel hizkuntzari nolabaiteko errekonozimendua eman ez gero, Georgiaren banaketa politiko ekartzen ahal duelako.

### 38.- Svan

Svan herriak *Shwan-är* deitzen dio bere buruari, hizkuntzari aldiz *lushnu nin* deitzen diote.

Svan hizkuntza goitiko eta beheitiko dialektoetan banatzen da. Goitikoak Ingur ugaldeko ibarraren goitiko zatian hitz egiten dira. Beheitikoak (lashj, lent’ej eta cholur) Tsjenists’q’ali ugaldeko ibarraren goitiko zatian.

Hizkuntza kartveliarren artean svanera-k gorde ditu ezaugarri arkaikoenak. Svan hizkuntza Georgia ipar-mendebaldeko eskualde menditsuan solasten da. Georgierarekin egiten du muga hego-ekialdean, megrel hizkuntzarekin hego-mendebaldean eta abkhaz hizkuntzarekin mendebaldean.

Hizkuntzaren hiztun kopuruei buruzko datuak oso eskasak dira. 1926ko lehendabiziko sobietar erroldaren arabera Georgian 13.218 Svan bizi ziren. Bertze estimazio batzuen arabera 50.000 Svan inguru bizi ziren Georgian.

Bertzalde, georgieraren ezagutzari buruz B. Nizharadze svaniarrak XIX. mendearen bukaeran Svan gehienek ez zutela georgiera ulertzen erran zigun.

Ikerketa eta idazkerari dagokionez laz, megrel eta svan hizkuntzak elkarrekin aztertuko ditugu. Hizkuntza hauek ikertu dituzte bertzeak bertze, G. Rosen alemaniarrek 1844an (megrel eta svan). A. Tsagareli georgiarra 1880an, “Megreldar ikerketen” bi liburuki

prestatu zituen, bertan *Ebangelioen* atalak georgiar alfabetoan eman zituen. Alfabeto hau hagitz ongi egokitzen da megrel hizkuntzaren beharretara. I. Q'ipshidze georgiarrak megrelera-errusiera hiztegia prestatu zuen 1953an.

1864an Tblisin argitara eman zen *Lushnu Anban* edo svan alfabetoa, dirudienez P. Uslar-ek prestatua. *Anban* honek zenbait solas, esaldi eta ebanjelioen pasarteak ematen ditu svaneraz, georgieraz eta errusieraz. Svan hizkuntzarekin jarraituz B. Nidharadze errusiera-svanera hiztegia prestatu zuen.

Iraultza osteko Georgian debekatua zegoen megrel eta svan hizkuntzetan liburuak idaztea, horrela urte anitzetan ezinezkoa izan zen svanera-georgiera eta megrelera-georgiera hiztegiak argitaratzea.

Svan hizkuntzari estatus literarioa emateko ahaleginek ez dute arrakasta handirik izan, dena den 1988tik aitzin zenbait egunkaritan testu batzuk argitara eman dira.

Megrel hizkuntzari dagokionez, 1880ko hamarkadan alfabeto zirilikoa erabiliz eredu literario bat prestatzeko ahalegina egin zen, biblia itzultzeko eta liturgian erabiltzeko. Horrela 1899an “Mingrel'skaja Azbuka” (megrel alfabetoa) argitaratu zen Tblisin.

1920ko hamarkadan eredu literarioa sortzeko bertze ahalegin bat egin zen Isak Zhvania megrel politikoaren ekimenez, baina ekimen honen kontrako jarrera gogorra erakutsi zuten zenbait megrel intelektualek, hauen aburuz megrel hizkuntza literarioaren sortzeak Georgiarekiko aislamendua ekarriko baitzuen eta Georgiaren zatiketa lagundu.

Megrelera literatur hizkuntza bihurtzeko ahaleginak arrakastarik izan ez bazuten, zenbait argitalpenetan erabili da, horrela 1932an *Q'zaq'shi Gazeti* (nekazarien egunkaria) argitaratzen hasi zen, 1936an *Komunari* izena hartu zuena.

Abkhazian, 1995ean *Gal* errusiar- abkhaziar-megrel egunkaria argitaratu zen.

Laz herriari dagokionez, Georgian 1927 eta 1938 bitartean kultur autonomia izan zuen, erromatar oinarriko alfabetoa prestatu zen, egunkari bat eta hizkuntza eskoletan erabiltzen hasi zen, horretarako *Alboni* eskola liburua prestatu zen. Dena den laz hizkuntzak berehala galdu zituen “pribilegio” hauek eta 1944an, Georgiako bertze herri musulmanak bezala (Meskh turkiarrak eta Hemshim armeniar musulmanak), Kazakhstanera deportatuak izan ziren.

Turkian laz hizkuntzaren idatzizko eredu sortzeko ahaleginak egiten ari dira, horrela 1991ean *Nana-nena* (ama hizkuntza) testu liburua argitaratu zen, liburu berean erromatar eta georgiar alfabetoak erabiliz.

Bertze hizkuntza batzuen eraginak: georgieraren eragina handia da hiru hizkuntza hauetan, batez ere megrel hizkuntzaren Senaki dialektoan. Bertzalde, abkhaz hizkuntzak eragina izan du megrel hizkuntzan eta neurri txikiago batean laz eta svan hizkuntzetan. Megrel eta laz hizkuntzen arteko desberdintasun nagusia greziar eta, batez ere turkiar eragina da, lazerak bi hizkuntza hauen eragin handiagoa jaso baitu.

Megreliar gehienak elebidun dira georgieraz/megreleraz Georgian edo abkhazera/megrelera Abkhazian. Laz-ak ordea, turkiera/lazera elebidunak dira.

3.- Hizkuntza altaikoak, bi adarretan banatuak: mongoliarra eta turkiarra.

3.1.- Mongoliarra

### 39.- **Kalmyk** edo **oirat**

Hizkuntzaren autoglotonimoa *khalmg keli* da.

Kalmyk edo oirat mintzaera hizkuntza mongoliarren taldeko ordezkari bakarra da Europan. Hizkuntza hau XVII mendean heldu zen Kaspiar itsasoko ipar-mendebaldeko eskualdera, Volga ugaldea itsasoratzen den lekutik mendebaldera. Europako herri budista bakarra dira.

1989an 322.579 pertsona bizi ziren Kalmikyako errepublikan (*khalmg theng* kalmykiar hizkuntzan), hauetatik kalmikiarrak % 45,4 ziren, errusiarrak 37,7, kaukasiarrak (zehaztu gabe) % 10 eta bertze eslabiarrak (errusiarrak kenduta) % 5. 1979 arte errusiarrak gehiengoa ziren errepublikan. 1979ko sobietar erroldaren arabera SESB-en 147.000 kalmyk bizi ziren, hauetatik %91 ama hizkuntza ezagutzen zuten. 1989ko erroldak 173.82 kalmikiar kopurua ematen zuen SESB guztirako, hauetatik 146.316 Kalmykiako Errepublikan bizi ziren.

1993rako datu hauek dauzkagu: errepublikako biztanleak 321.000 ziren, hauetatik Kalmyk % 45,4, errusiarrak % 37,7, Dargwa % 4, Chechen % 2,6, Kazakh % 1,9 eta bertzeak %8,4. Badira kalmykiarrak errusiako Astrakhan, Volgograd eta Orenburg probintzietan, Siberian eta Kirgiziako Errepublikako Przhevalsk hirian, hondarreko hiri honetan hitzegtzen den dialektoari sart qalmaq deitzen zaio.

Idazkerari dagokionez 1648-1924 bitartean arte uighur edo mongoliar idazkera erabiltzen zen (zutabe bertikaletan idazten da). 1923-38 bitartean alfabeto erromatarra egon zen indarrean eta hortik aitzin zirilikoa erabiltzen da. Herri budista izanik, erlijio hizkuntza bezala tibetera erabiltzen dute

1943an kalmikiarrak Asia Zentralera deportatu zituzten II. mundu gerratean alemaniarrak laguntzearen akusaziopean. Gertaera hau hagitz kaltegarria izan zen herri honen kulturaren eta hizkuntzaren biziraupenerako.

1990. urtean parlamentuak kalmykiera eta errusiera errepublikako hizkuntza ofizialak izendatu zituen. Gaur egun irakaskuntzan erabiltzen da. Zenbait iturrien arabera bertze esparru batzuetan ere erabiltzen da: irratan, telebistan, prentsa idatzian eta antzerkian.

### 3.2.- Turkiarra

#### 40.- **Azerbaijanera** edo **azeri**

Hizkuntzari XIX. mendea arte *turki* deitzen zitzaion. XIX. mendearen bukaeran *azeri* edo *azerbaijandar turkiera* izena hobetsi zen.

Azerbaijan Errepublikako hizkuntza ofiziala da. (7 miloi biztanle) eta bertako biztanleriaren %83aren hizkuntza da. Hiztun kopuru handiena Iranen dago, Zanzan eta ekialdeko eta mendebaldeko Azerbaijan probintzietan. Iranerako ematen diren hiztun kopuruak 13 eta 30 miloi artekoak dira.

Azerbaijan eta Irandik kanpo hiztun kopuru txikiagoak daude Dagestanen, Georgian, Turkian eta Sirian.

Dialektoei dagokienez geografiko lau multzo bereizten dira:

- 1) Ekialdekoa: Kuba, Baku eta Shemakha dialektoak eta Mughan eta Lenkoran azpidialektoak.
- 2) Mendebaldekoa: Kazakh (izen bereko hizkuntzarekin inolako zerikusirik gabe), Karabakh eta Ganja dialektoak eta Ayrum azpidialektoa.
- 3) Iparraldeko multzoa: Nukha dialektoa eta Zakataly-Kakh azpidialektoa.
- 4) Hegoaldeko multzoa: Nakhichevan eta Ordubad dialektoak.

Azerbaijanera turkiar hizkuntzen Oghuz adarreko kidea da, Anatoliako turkiera eta Turkmenistango turkmen hizkuntzekin batera. Hiru hizkuntza hauek elkarren artean ulergarri dira.

Alfabetoari dagokionez 1929 arte arabiar-pertsiar alfabetoa erabili zen, 1929 eta 1939 bitartean egokitutako alfabeto erromatarra erabili zen, 1940tik aitzin alfabeto zirilikoa erabiltzen da, aldaketa anitz ondoren 1958 behin-betiko eredu finkatu zen. 1991ean independentzia lortzearekin batera berriro ere alfabeto erromatarrera itzuli zen eta 2001eko abuztutik aitzin derrigorrezkoa da dokumentu ofizialetarako nahiz herrialdean argitaratzen diren liburu, aldizkari eta egunkarietan, hala nola errotulazio eta publizitaterako .

Bertze hizkuntzen eraginen artean arabiera eta pertsiera izan dira nagusi, orokorrean arabiar solasak pertsieraren bidez sartu dira hizkuntzan. XIX. mendea arte Azerbaijan Pertsieraren zati bat zen, horregatik hizkuntza honen eragina hagitx garrantzitsua izan da. XIX. mendetik aitzin errusiera izan da mailegu iturri nagusia, bereiziki arlo teknikoan.

Hizkuntzaren estatusari dagokionez Transkaukasiako Federazioa 1936an desegin ondoren, azerbaijanera Azerbaijango hizkuntza ofiziala bihurtu zen, eta errusierarekin batera bizitzaren aspektu guztien hizkuntza izan zen (hezkuntza, justizia, komunikabideak eta orokorrean bizitza publiko guztia). 1991an independentzia aldarrikatu eta gero errepublikako hizkuntza ofizial bakarra da.

1917 baino lehen azerbaijanera Dagestan hegoaldeko eta Transkaukasiako *lingua franca* zen (Georgian izan ezik). 1923 eta 1928 bitartean azerbaijanerak arabiera ordezkatu zuen Dagestango ikastetxeetan.

Iranen azerbaijanera ez da inoiz hizkuntza ofiziala izan. Pahlevi dinastiaren garaian (1924-1978) debekatua egon zen. 1979tik aitzin prentsa eta irratian erabiltzen den arren ez du irakaskuntzan sarbiderik izan. Iranen pertsiar-arabiar alfabetoa erabiltzen da idazkerarako.

#### 41.- **Karachay-balkar**

Hizkuntzaren autoglotonimoa *karachai-malkart til* da.

Hiztunen gehiengoa Karachay-Cherkesia eta Kardino-Balkaria errepubliketan bizi da.

Dialektoei dagokionez, karachayan ez dialektorik desberdintzen, bai ordea balkarrean, hemen lau dialekto desberdintzen dira, bakoitza ugalde baten ibarrean, horrela: bakhshan, chegem, khulam-bezinga eta balkart edo cherek-balkart. Hauetatik lehenengoa, bakhshan, hartu zen idazkerarako estandartzat



Orokorrean karachaya eta balkarra hizkuntza beraren dialektotzat jotzen dira. Turkiar hizkuntzen kipshak adarraren ponto-kaspiar multzoko kide dira. Gaur egun idatzizko bi hizkuntza badira ere, 1941 arte idatzizko forma bera erabiltzen zuten. Hurbilen duen hizkuntza Dagestango kumyk da.

1989ko sobietar eroldaren arabera karachay hizkuntzak 155.936 hiztun zituen eta balkarrak 85.126.

Bietatik karachaya izan zen idatzi zen lehena. Lehenengo liburua 1916an eman zen argitara arabiar alfabetoan. Gaur egun erabiltzen den alfabetoa zirilikoa da. Alilani-Umar da karachay-balkart literaturaren aita.

#### 42.- **Kumyk**

Hizkuntzaren autoglotonimoa *kumuk til* da

Hizkuntza hau Dagestango hego-mendebaldean hitz egiten da, Kaspiar itsasoaren kostaldean. Dagestandik at kumyk hizkuntzaren hiztunak Chechenia iparraldean (9.853) eta Ipar Osetiako Mozdok barrutian (9.487) bizi dira. 1989ko sobietar eroldaren arabera 282.000 Kumyk bizi ziren SESBen. Gaur egun Kumyk herriaren % 83a Dagestanen bizi da.

Hizkuntzan hiru dialekto nagusi bereizten dira: 1) Khasav-Yurt edo iparraldekoa, Majachkala hiriarren inguruan, hizkuntza estandarren oinarri 2) Buynask edo erdialdekoa, iparraldeko dialektotik hagitz hurbila eta 3) Jaydak edo hegoaldekoa, Derbent inguruan.

Kumyk hizkuntza Turkiar hizkuntzen kipshak adarraren ponto-kaspiar multzoko kidea da, hizkuntza turkiarren Oghuz adarraren eragin handia badu ere, Otomandar inperioaren kultur eraginagatik eta Azerbaijanen hurbiltasunagatik.

Majachkala Dagestango hiriburua hizkuntzaren kultur gune nagusia da. Kumyk hizkuntza, Dagestango kostaldeko *lingua franca* izan zen luzaroan, checheniarrek, avarek eta bertze herri batzuk erabiltzen zutelarik.

Literaturari dagokionez kumyk hizkuntzan lehenengo liburua 1883an argitaratu zen, bere egilea Magomed Osmanov izan zen eta arabiar karaktereak erabili zituen. XX. mendean 1928-38 bitartean erromatar alfabetoa erabili zen eta 1938tik aitzin zirilikora aldatu zen.

Estatusari dagokionez Dagestango zazpi hizkuntza “estataletako” bat da.

#### 43.- **Nogai**

Herri honek bere buruari *nogai* deitzen dio, hizkuntzari *nogai tili* izena ematen diote.

Nogai herria lurralde hauetan bizi da: Dagestan (Nogai eta Kizlyar barrutiak, 30.000 mila inguru), Stavropol probintzia (Neftekunsk, Mineralnye-Vodi, Kochubey,

Achikulak eta Step barrutiak, orotara 15.000), Chechenia (Shelkov barrutia, 7.000), Karachay-Cherkesia (13.000) eta Astrakhan probintzia (4.000).

Nogaiak Errumaniar eta Moldavian bizi dira ere, 1977ko Errumaniako erroldak bertan 23.107 “Tatar” bizi zirela dio, izen honekin Krimeako tatariarrak eta Nogaiak izendatzen ziren.

Dialektoei dagokionez, N. Baskalov-ek hiru dialekto multzo bereizi zituen: a) Karanogai edo nogai beltza, Dagestanen hitzegiten da, batez ere Nogai barrutian, b) erdiko nogai edo berezkoa, Stavropol probintziako Neftekumsk eta Achikulak-en eta c) Ak-nogai edo nogai zuria, Karachay-Cherkesian eta Mineralnye-Vody barrutiko Kangly herrian.

Inguruko herriekiko harremanak eta banaketa geografikoak eragina izan dute dialekto hauen bilakaeran. Kara-nogai arabiar eta tatar eragina izan du, Ak-nogai cherkesa, abaz eta karachay hizkuntzen eragina nabari daiteke.

Nogai hizkuntza turkiar hizkuntzen kipshak adarraren aralo-kaspiar multzoko kidea da. Hurbilen duen hizkuntza kazakhera da.

Hiztun kopuruari buruzko datu hauek dauzkagu: 1926an 34.000, 1959an 41.200 (Stavropol-en 17.600 eta Dagestanen 14.900), 1970ean 52.000, 1979an 59.546 eta 1989ko sobietar erroldak SESBen 75.181 Nogai bizi zirela dio.

Idazkerari dagokionez, idatzizko lehenengo formak alfabeto arabiarra erabiltzen zuen, 1928 erromatar alfabetoak ordezkatu zuen, 1929an Moskun lehenengo liburua argitaratu zen. A Dzhanibekov izan zen eredu idatzia finkatu zuena, horretarako Dagestango karanogai dialektoa hartu zuen oinarritzat. 1938an alfabeto zirilikoak erromatarra ordezkatu zuen. 1956an N. Baskalov-ek errusiera-nogai hiztegia argitaratu zuen, 1973an nogai hizkuntzaren gramatika argitara eman zen.

Hizkuntza Dagestango Nogai barrutian eta Karachai-Cherkesiako eskoletan erakusten da. 1973an bi egunkari argitara eman ziren, bata Karachai-Cherkesia Errepublikan eta bertzea Dagestango Nogai barrutian.

Estatusari dagokionez Dagestanen hizkuntza “estatal” maila du eta estatus bera dauka Karachay-Cherkesia Errepublikan, karachay eta cherkes hizkuntzekin batera.

#### 4.- Hizkuntza indoeuroparrak:

##### 4.1. Armeniarra

##### 4.1.- Armeniera

Armeniarrak bere buruari *Hay* deitzen diote, lurri *Hayastan* eta hizkuntzari *hayeren*.

Armeniako errepublikan hitz egiten da, diasporan Europan, Amerikan eta Ekialde Ertainean hiztun multzo handiak daude.

Dialektoei dagokionez Arsen Aytenian (1825-1902) 4 multzo bereizi zituen:

- a. Van (Turkiako hegomendebaldea) eta Mesopotamia,
- b. Konstantinopla eta Asia Txikia.

- c. Polonia eta Transilvania.
- d. Ekialdekoak: Astrakhan, Pertsia, Rusia eta India.

H. Acaryanek 1909an 3 multzotan banatzen ditu dialektoak:

- 1) *Um* adarra edo ekialdekoa (Ereban, Tiflis, Agulis eta Julfa).
- 2) *Ke/ku* adarra edo mendebaldekoa (Karin, Van, Tigranekart, Zilizia, Siria, Konstantinopla eta Krimea)
- 3) *El* adarra (Maras, Khoy eta Ardvin).

Hizkuntza indoeuroparren baitan armenierak adar berezia osatzen du. Talde honen baitan hurbilen dituen hizkuntzak grekera eta indoiranier multzoko farsi hizkuntza dira.

Armeniar alfabetoa, georgiarra, koptoa, gotikoa eta zirilikoa bezala arrazoi kultural eta erlijiosoengatik sortu zen. Kristautasuna III. mendearen bukaeran iritsi zen Armeniara eta 314. urtean erlijio nazional bihurtu zen. Alfabetoaren sortzailea Mesrop Mastoc apeza izan zen 406. urtean, 36 karaktere dauzka eta hizkuntzaren behar fonetikoetara bikain egokitzen da. Alfabeto hau oraindik indarrean da. Hiru dira alfabeto honen ezaugarriak: a) ezkerretik eskuinera idazten da, b) oinarri fonetiko erabatekoa du, hau da soinu bakoitzak bere hizkia dauka eta hizki bakoitzak soinu bakarra adierazten du, c) hizki bakoitzak grafia bakarra eta aldaezina du.

Armenieraz gain, arabiar, asiriarr, turkiar eta tatarriar testuak idazteko erabili da alfabeto hau.

Literaturari dagokionez, gorde den lehenengo testua V. mendekoa da, 416. urteko bibliaren itzulpena. Honek ez du erran nahi aldeztatik literatura ez dagoenik, V. mendeko literatura hagitz aberatsa baita eta ziur aski aldeztatik oinarriak izanen zituen.

Eredu klasiko hau (*grabar*, hitz idatzia), literatur eredu nagusia izan zen V eta XIX. mendeen artean. Dena den, XII. mendetik aitzin bertze eredu literario bat sortu zen, *Mijin hayeren*, armeniera ertaina, ahozko hizkuntzatik hurbilago zegoena. Eredu hau erabili zuten Nerses Snorhali (1102-73), Mxit'ar Gos (1140-1213) eta Vardan Arewelc'i (1200-71).

1375an Ziliziako armeniar erresumen desagertzeak diasporari hasiera eman zion, beranduago Armenia Pertsia eta Turkia artean zatitu zen, honek emigrazioa areagotu zuen. Gertaera hauek armeniera ertainaren gainbehera ekarri zuten. Diasporaren ondorio nagusia hizkuntza literario berri baten sortzea izan zen, armeniera ertaina erabiltzeari utzi zitzaien eta *grabar* edo armeniera klasikoa da nahiz eta oraindik erabili (eliza gregoriarrean batez ere), armeniar gehienentzat ulertezina zen. Horrela *Asxarhabar* edo armeniera modernoa sortu zen

Gaur egun ekialdeko armeniera Armeniako Errepublikaren hizkuntza ofiziala da (3.500.000 biztanle) eta Irango armeniar komunitateen hizkuntza. Mendebaldeko armeniera Europako, Estatu Batuetako eta Ekialde Ertaineko diasporan erabiltzen da.

4.2.- Eslaviarra:

45.- **Errusiera**

Errusiera ukrainiar eta bielorrusiar hizkuntzekin batera, hizkuntza eslabiarren ekialdeko multzoa osatzen du.

Hiztun kopuruari dagokionez honako datu hauek ditugu, 1979ko sobietar erroldan SESB guztian 153.655.000 hiztun zeuden. Hauetatik 137.397 errusiarrak ziren eta 16.300.000 ez-errusiarrak baina errusiera ama hizkuntza zutenak. 1991n independentzia eskuratu zuten Kaukaso hegoaldeko errepubliketarako datu hauek dauzkagu: Armenian 70.000, Azerbaijanen 475.000 eta Georgian 372.000 errusiar bizi ziren.

1989ko erroldan 285.743.000 sobietarretatik, 163.578.000k ama hizkuntzatzat zuten eta 69.010.000 bigarren hizkuntza. 1991n SESB desagertzerakoan, Errusiar federazioa sortu zen, bertan errusieraren 119.866.000 hiztun agertzen dira, hauei bigarren hizkuntzatzat zuten bertze 27.156.000 hiztun gehitu behar zaizkie, beraz orotara 147.022.000 hiztun daude Errusiar Federazioan.

Kaukaso hegoaldeko Armenia, Azerbaijan eta Georgiako errepubliketan errusierak hizkuntza ofizial maila galdu du. Errusiaren baitan dauden Kaukaso iparraldeko lurraldeetan bertako hizkuntzekin batera ofiziala izaten jarraitzen du, (Chechenian izan ezik) eta hizkuntza nagusia da oraindik administrazioan, komunikabideetan eta irakaskuntzan.

Bertzalde, etnia desberdinen arteko komunikazio tresna nagusia da, ipar kaukasoko hizkuntzen hiztunen gehiengoak errusiar hizkuntza ezagutzen baitu, eskolaren eraginez eta soldaduska armada gorrian egitearen ondorioz (gizonezkoak).

Honen adibidetzat Dagestango kasua aipatuko dugu, bertan zazpi hizkuntza estatal daude, errusiera ez da hauetako bat baino hala ere administrazioan gehien erabiltzen den hizkuntza da.

#### 4.3.- Iraniarra

#### 46.- **Kurduera**

Kurduak *Kurdmandzh* deitzen diote bere buruari

Gaur egun hizkuntza herrialde hauetan hitz egiten da: Turkia (15 miloi inguru, populazioaren % 20), Siria (miloi bat inguru), Iran (8 miloi inguru, populazioaren % 17), Irak (5 miloi inguru, populazioaren % 25), Armenia, Georgia eta Azerbaijan. Zaila da jakitea zenbat diren hizkuntzaren hiztunak, baina ematen diren kopuruak 30 miloietatik hurbil daude.

Hizkuntzak bi dialekto nagusi dauzka: kurmanji eta dimili-durani. Kurmanji dialektoa honako azpidialekto hauetan banatzen da: iparraldeko kurmanji (bahdinani), Turkian, Sirian eta SESB ohian erabiltzen dena, eta hegoaldeko kurmanji (sorani), Iraken eta Iranen.

Hegoaldeko Kaukasoko hiru errepubliketan kurmanji dialektoaren bahdinani aldaera erabiltzen da.

Hizkuntza iraniar multzoko mendebaldeko adarreko kidea da eta hurbilen duen hizkuntza Irango farsi hizkuntza da.

Sobiet Batasunean Kurduak talde etniko bezala ezagutuak ziren, sobietar erroldak informazio hau eskaintzen digu: 1939an 76.000 Kurdu bizi ziren SESB-en, 1959an 59.000 (26.000 Armenian, 16.000 Georgian eta 14.000 Asia erdian eta Kazakhstanen), 1979an Armenian 51.000 eta Georgian 26.000, Azerbaijango daturik ez da agertzen. 1983an 130.000 bizi ziren SESB-en.

1923-29 bitartean berezko lurralde bat izan zuten SESB-en, Kurdistana Sor (Kurdistan gorria), Azerbaijanen, Ngorno-Karabaj eta Armenia artean, Lachin hiriaren inguruan. 1989ko sobietar erroldaren arabera **Azerbaijanen** 20.000 kurdu inguru bizi ziren. Kurduak kopuru anitzez handiagoak ematen dituzte, 250.000 eta 400.000 bitartekoak. Gaur egun Kelbajdar, Lyaki, Kubatly eta Zangelan eskualdeetan eta Lachi inguruan bizi dira, hondar hauek Armenia eta Azerbaijango gerra dela eta anitzek alde egin behar izan dute. Azerbaijanen badira ere Kurduak Zardaba hiriaren inguruan, Azerbaijango erdialdean eta Sadarak eta Teyvaz herrietan Nakhichevan eskualdean. Hortaz gain Azerbaijango hiri nagusietan bizi dira ere.

**Armenian** bizi diren kurduak buruzko zenbaki zehatzik ez dago, estimazioek 60.000-75.000 arteko kopurua ematen dute (populazioaren % 1,8), batez ere errepublikaren ipar-mendebaldean bizi dira Talin eta Echmiadzin eskualdeetan.

**Georgian** ere bizi dira kurduak, Tblisi hiriburuan bada auzo kurdu bat non 34.000 inguru bizi diren, Telavi hirian bertze 8.000 bizi dira.

Idazkerarako, Iraken eta Iranen sorani dialektorako pertsiar-arabiar alfabetoaren moldaketa bat erabiltzen da. Bahdinani dialektoaren hiztun diren Turkiako kurduak erromatar alfabetoa erabiltzen dute Europar argitara ematen dituzten testuetarako. SESB ohiko kurduak 1920ko hamarkadan armeniar alfabetoa erabiltzen zuten, 1927tik aitzin alfabetoa erromatarra eta 1945etik aitzin zirilikoa. Gaur egun biak, zirilikoa eta erromatarra erabiltzen dituzte.

Hizkuntzari ez zaio inolako ofizialtasunik onartzen Kaukaso hegoaldeko hiru errepubliketan.

#### 47.- Osetiera

Hizkuntzaren autoglotonimoa *iron avzag* da.

Hizkuntza hau Errusiako Iparraldeko Osetian eta Georgiako Hegoaldeko Osetia errepublika autonomoan hitzegiten da. Bi errepublika hauetatik at badira ere osetiar hizkuntzaren hiztunak Georgian, Kabardino-Balkariako errepublikan eta Krasnodar probintzian.

Hizkuntzak bi dialekto nagusi dauzka: ekialdekoa edo iron eta mendebaldekoa edo digor. Iron dialektoa idatzizko ereduaren oinarria da eta idazkera zirilikoa erabiltzen du. Kosta Jetagurov poeta izan zen literatur ereduaren sortzailea. Hiztun kopuruaren aldetik iron dialektoa da nagusi. Iron-en hiztunak kristau ortodoxoak dira eta digor dialektoaren hiztunak musulman Sunniak. Digor dialektoak Kabardin hizkuntzaren eragin handiagoa izan du.

Hizkuntza indoeuropar hau iraniar multzoko ekialdeko adarreko kidea da. Hurbilen dituen hizkuntzak Afghaniastango Pashtun eta Taykistango Pamir multzoko hizkuntzak dira. Osetiarren arbasoak Kaukasoan kokatutako eszitar-sarmatiar tribuak dira.

1989ko sobietar erroldak SESB guztirako 597.998 osetiar kopurua ematen du, hauetatik 334.879 Iparraldeko Osetian, 164.055 Georgiako Hegoaldeko Osetian, Kabardino-Balkarian 10.000 inguru eta Karachay-Cherkesian 4.000 inguru.

Errusiako Iparraldeko Osetia edo Alania Errepublikak autonomoko hizkuntza ofizialetako bat da errusierarekin batera. Georgiako Hegoaldeko Osetia errepublika autonomoan hizkuntzak duen estatusa oraindik argitu gabeko afera da. Dena den Georgiako konstituzioak ez du hizkuntza honi buruzko inolako aipamenik egiten.

#### 48.- Talysh

Talysh herriak *Talush* (singularra) eta *Talushon* (plurala) deitzen dio bere buruari.

Talysh herria Azerbaijango hegoaldean bizi da, Irango mugaren bi aldeetara. Azerbaijango Lenkoran, Astarin, Lerik eta Massalin barrutietan. Iranen Talyshak Kaspiar itsasoaren kostaldean bizi dira, Gilan probintziako ipar-mendebaldean.

Hiru dialekto bereizten dira:

- 1) iparraldeko Talysh Azerbaijanen.
- 2) Talysh ertaina Iran iparmendebaldeko Asalem-Hashpart inguruan, kaspiar itsasoko kostaldean.
- 3) hegoaldeko Talysh, Irango Gilan probintzian, Shanderman, Masal eta Masule inguruan.

1926ko sobietar erroldaren arabera Azerbaijanen 77.039 Talysh bizi ziren. 1959ko erroldatik aitzin azerbaijandarrak balira bezala hartu zituzten eta urte berdinerako 10.500 hiztun zirela erraten du. 1982ko estimazio batek 130.000 kopurua ematen digu Azerbaijanerako. 1983. urtean 100.000 Talysh bizi ziren Iranen eta 1993an 112.000.

Talysh hizkuntza indoeuroparra da, iraniar multzoko ipar-mendebaldeko adarrekoa. Hizkuntza hurbilenak Dagestango tat eta Irango gilaki eta mazanderani hizkuntzak dira.

Hizkuntza ez da idazten, baina lehen alfabeto arabiar-pertsiarra erabili zela badakigu. Idazkerarako azerbaijanera erabiltzen da, bertzalde Azerbaijango Talysh guztiak elebidun dira eta azerbaijanera ezagutzen dute.

#### 49.- Tat

Tat hitza turkiar jatorrikoa da eta turkiar hizkuntza ez duen populazio sedentarioa adierazten du, errusiarrek *Taty* izena erabiltzen dute. Beraiek *Tat* izena erabiltzen dute bai talde etnikorako eta bai hizkuntzarako.

Erljioaren ikuspuntutik Tat herria 3 multzotan bereizten da:

- 1) Islamiarrak (gehiengo Shii eta gutxiengo Sunnia).
- 2) Kristauak (eliza armeniar gregoriarraren jarraitzaileak, Matrasa eta Kilvar herrietan).
- 3) Juduak, mendi juduak deitzen zaie eta batzuetan herri berezizat hartzen dira.

Erljio banaketa honek dialektoetan islada du, horrela bi multzo bereizten dira: Tat musulmana eta Tat judua. Tat kristauak hizkuntza aldetik musulmanen multzoan sartzen dira.

Tat musulmanak Azerbaijanen Siazan, Divichin, Kuba, Kokhkent, Shemakala eta Ismailin barrutietan, Bakun eta Apsheron peninsulan bizi dira. Badira ere Tat hiztunak. Iranen, Dagestanen eta Nal'chik-en (Kabardino-Balkariako hiriburua).

Azerbaijanen Tat-ak azerbaijandarrekin batera herri mistoetan bizi dira. Tat juduak edo mendi juduak Dagestango Kaitag eta Magaramkend barrutietan, Derbent eta Majachkala hirietan eta Azerbaijango hiru herrietan: Krasnaya, Slovoda eta Oguz (lehen Vartashen) bizi dira.

Kopuruari buruz zaila da zenbaki zehatzak ematea, 1926ko erroldak Azerbaijanen 28.433 Tat eta 26.000 Tat judu bizi zirela erraten du. Hurrengo erroldatan Tat juduak gainontzeko juduekin batera agertzen dira. Tat musulmanei buruzko datu hauek dauzkagu: 1959: 11.500, 1979: 22.441 (% 67,4 tat hizkuntzaren hiztunak, 8.800 Azerbaijanen eta 7.400 Dagestanen), 1989: 25.000 inguru.

Idazkerari dagokionez lehenengo ereduia 1928an sortu zen, erromatar alfabetoan oinarritua. 1938an alfabeto zirilikora aldatu zen. Dena den hagitz guti izan ziren tat hizkuntzan argitara emandako lanak. Azerbaijanen eskolak azerbaijaneraz ematen dira eta Dagestanen errusieraz.

Tat, hizkuntza indo-euoparren indo-iraniar multzoko hego mendebaldeko adarraren kidea da. Gaur egun hiztun gehienak elebidun dira azerbaijaneraz.

Hau hizkuntzei dagokionez, talde etnikoetaz solasten bagara badira bertze anitz, frankotan berezko hizkuntza izan ez arren, bertzeak bertze honako hauek aipatuko ditugu:

- **Urum:** talde etniko hau Georgiako kostaldeko zenbait hiritan, Georgiako Tsalka barrutian, Turkiako Itsaso Beltzeko kostaldean eta Krimean bizi zen. Erljioz greko-kristauak izanik, Krimeako tatarren antza duen hizkuntzaz solasten dira. 1923tik aitzin gehienek Greziara emigratu dute, non bere hizkuntza galdu duten. Urum anitz gaur egun Ukranian bizi da, Donetsk eta Zaporozhe eskualdeetan. eta Mariupol hirian.

1989ko sobietar eroldaren arabera 45.000 inguru ziren, beraiek 60.000 direla diote, anitzek bere nazio-identitateak galdu baitute eta orain bere burua errusiartzat edo ukraniartzat dute.

- **Meshk turkiarrak:** talde honen jatorriari buruz iritzi desberdinak daude, batzuentzako georgiarrek, checheniarrek, kurduak, qarapapakhek (leinu azerbaijandarra) eta hemshimliek (armeniar musulmanak) osatuko zuten talde hau, bertze batzuentzako ordea, XIII. mendetik aitzin Georgiako Meshkhetia eta Djavakhety eskualdeetan kokatutako turkiar tribuetako ondorengoak dira. Talde etniko honetako kideak erlijioz musulman sunniak dira. Turkieraz solasten dira. 1944. urte arte Georgiako Akhltsikhe eta Samtsche eskualdeetan bizi ziren. Urte horretan Kazakhstan eta Asia Zentralera deportatuak izan ziren. Georgiak ez du onartzen Meshkhetiara itzultzea eta Kaukasoko iparraldeko Stavropol eta Krasnodar probintzietan kokatu dira, non bertako errusiar eta kosakoek ez dituzte ongi hartu.

Populazioari buruzko datu hauek dauzkagu: 1989ko sobietar eroldaren arabera, SESB-en 207.500 Meshk bizi ziren modu honetan banatuak: Uzbekistanen 106.000, Kazakhstanen 49.600, Kirgizian 21.300, Azerbaijanen 17.700 eta Errusiako federazioan 9.900.

- **Hemshim:** armeniar musulmanak.

- **Ajariarrak:** musulman georgiarrak.

## BIBLIOGRAFIA

- Crystal David, (2001) *La muerte de las lenguas*, Cambridge University Press, Madrid.
- Gonet Amiran eta bertze, (1998) *Diccionario de los pueblos del mundo*, Mario Muchnik, Madrid.
- Etxegoien Juan Carlos, Xamar, (2001), *Orekan, Herri eta Hizkuntzen ekologiak*, Pamiela, Iruñea.
- Moreno Cabrera Juan Carlos, (2000), *La dignidad e igualdad de las lenguas*, Alianza Editorial, Madrid.
- Price Glanville(zuzendaria), (2001), *Enciclopedia de las lenguas de Europa*, Gredos, Madrid.

Internet izan da informazio iturri nagusia, kontsultatu ditugun web orriak aunitz izan dira, ehun baino gehiago agian. Bertzeak bertze, honako hauek aipatuko ditugu:

Armenia: <http://www.arminco.com>

Azerbaijan: <http://www.azerb.org>

Dagestan: <http://www.dagestan.org>

Encyclopedia Britannica: <http://www.britannica.com>

Ethnologue-SIL: <http://www.ethnologue.com>

Ichkeria: <http://www.ichkeria.org>

Kaukasoa: <http://www.ethnologue.com>

The red books of the peoples of the soviet empire: <http://www.eki.ee>



